

Arrakasta handia partaidetza aldetik Maratoi Txikian

10. orrialdea

1936ko gerra Arratian

Lemoatxeko bataillaren 76. urteurrenean, Lemoatx 37 Batzorde Herrikoiak Iñaki Egaña historialaria eta Euskal Memoria Fundazinoak eka- rri eban Lemoara berbaldi bat emoteko. Aretoa beteta, Egañak bonbar- daketan hildako, gerra ostean kartzeleratutako edo ume izanda atzerrira joandako Lemoako bizilagunen datuak emon ebazan. 13. orrialdea



Musikearen Astea antolatu dabe hilaren 17tik 21era Areatzan

13. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

187

2013ko bagilaren 4a
hamabostekaria
www.begitu.org

Mobilizazioak industrian

Maiatzaren 30eko grebak segmentu handia izan eban Arratian, batez be industrian.

Enpresa handi gehienak eta ertainak zarratu eben eta Igorreko arrastiko manifestazioan greba mugabakoan dagozan Incoesa eta Alfuseko enpresetako beharginak protagonismo berezia izan eben. Izan be, industriak egoera larria bizi dau eta hainbat enpresetako beharginak mobilizazioetan dabiz.

Bediako Incoesa zarratu gura dau Enpresa Zuzendaritzek eta beharginai lanlekua Extremadurara batzuei eta Soriera beste batzuei aldatu gura deusela salatu dabe Incoesako beharginak. Lanpostuak hemen mantenduteko burrukan dagoz bertako beharginak.

Alfusen 16 langile kaleratu eta lan-baldintzak okertu gura dabezalako dagoz greba mugabakoan. Itxialdi bat be egiten dabiz langile bi bertan.

Incoesa eta Alfuseko beharginak bagilaren 8an Bedian, Arratiako lanpostuen defentsan egingo dan manifestazioan parte hartzeako deia egin dabe. Manifestazioa arrastiko seiretan izango da eta Alfus enpresatik abiatuko da. 6. eta 7. orrialdeak



Gehiengo sindikalak deituta maiatzaren 30eko greba egunean Igorren egindako manifestazioa.

ZEANURI

Sasiak eta ahanzturak ostondutako ibilbidea



Pabi Astondoa Iturriza baserrikoak, paraje ederrak, ondare kulturala eta tradizio mitologikoa batzean dauan, baina oso gitxi ezagutzen daberen ibilbidea erakutsi deuto BEGITURI. Kilometro gitxi batzutan, lau errota, karabi bi, ur-saltoa eta izaki mitologikoen ezkutalekua zan koba bat topau daitezke. 8. eta 9. orrialdeak

IGORRE

Hasi da jai sasoia

Bagilan hasi eta uda amaitu arte, gure eremuko hamar herrietan eta dozenaka auzunetan, egitarau oparoago edo xumeagoagaz jaiak ospatuko ditue arratiarrak. Hamabostaldi honetan, Igorreko jaiak izango dira ondo pasetako gogoia daukien gazte eta ez hain gazteak batuko dituenak. Hamar eguneko egitaraua prestatu dabe horretarako. Zeberioko Ermitabarrin be ospatuko ditue jaiak sanantonioetan. Erromeria, rock jaialdia, pelota partiduak eta hainbat dastaketa ez dira falta auzune honen jai egitarauan. 5. orrialdea

E P A
Galdakao
www.epagaldakao.com
Matrikuletako epea,
bagila osoa.
Tlfn. 94 456 60 98
Helduen heziketa

E.P.A.
IGORRE: Elejalde 22. Eleizako lokaletan

IGORRE

Igorre II Zabortegia Otuak erosi dau

Igorre II inerteen zabortegia Otua taldeak erosi dau 14 miloe euro ordainduta. Garbikerrek subastara atera zituan lur horreek. Igorreko Udalak kontrolau gura dau zer eroaten dan bertara eta Eusko Jaurlaritzako Ingu- rumen Sailagaz batu da Beinat Anzola Igorreko alkatea.

Aparion zabortegi bi dagoz. Batak uri hondakinak jasoten ditu eta besteak inerteak. Uri hondakinetak zabortegia urte amaieran zarratuko da eta transferentzia zentrua bagilan hasiko dirala egiten dino alkateak. 5. orrialdea

Olaetxe
OPTIKA ZENTRUA

- Graduazioak
- Ikusmen terapia
- Ikusmen gitxitua
- Begiko tentsinoa
- Lentillen adaptazioa
- Kiroletarako betaurrekoak

Ondo pasau Igorreko jaietan!!

Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

IGITIE**ZER DA AGROEKOLOGIA?**

Agroekologia ohiko zientziarenaz bestelako ikuspegia proposatzen dau nekazaritzaren elikagaien sistemak aztertzeko eta nekazal garapenerako. 70eko hamarkadan sortu zan paradigma zientifiko gisa, nekazal eremuetan modernizazioaren eta elikagaien industrializazioaren gizarte eta ingurumen krisiari emondako erantzun teoriko metodologiko eta praktikoa (Sevilla 2006). Praktika moduan, agroekologia erispideetan oinarritutako agroekosistemen diseinu eta erabilera jasangarriak proposatzen ditu (Altieri 1999), gizarte ekintza kolektiboen eta garapen parte hartzaileko proposamenen bitartez, erantzun jasangarriak eta globalak emoteko gure oinarritzko beharren asetzeari.

Proposamen honek ekoizpen era tradizionalak ditu iturri, gaur egun nekazal elikagaien ereduaren gizarte barrikuntzak proposatzeko berraztertzen diranak.

Ikuspegi teoriko eta metodologiko moduan, agroekologia estrategia arloan hitza da baliabide naturalen erabilera parte hartzaileko erak aztertzeko eta diseinetako, tokiko garapenerako proposamen alternatiboai lotutako kontzeptu eta erispide ekologikoak aplikauz. Horrenbestez agroekologia aldi berean da agroekosistemen eta nekazal elikagaien sistemen azterketea eta ebaluaziorako ikuspegi zientifikoa zein tokiko baliabideen erabilera ekologikoaren inguruko praktika tekno-produktiboetarako eta so-

ziopolitikorako proposamena.

Agroekologiaren ikuspegiak hiru azterketa dimensio dakar. Dimensio tekniko-produktiboak agroekosistemen diseinu jasangarria dauka oinarri. Ekologia da hemen eremu zientifiko erreferentziala, eta nekazarien zein indigenen antxinako jakintzetan oinarrituz, agronomiaren, albaitaritzaren eta baso zientzien oinarri teknikoan birdefinitzea proposatzen dau. Dimensio sozioekonomikoak tokiko baliabideen eta ahalmenen birbaloratzea dauka helburu, azken finean, garapen endogenoa birsortzea. Horreei lotuta, hirugarren dimensioak, soziopolitikoak prozesu parte-hartzaileetan bustitzea dakar, sare kritikotetan edo globalizazio agroalimentarioaren aurreko alternatibak eragiteko ikerketa aplikarako ekimenetan.

**TELEFONO INTERESGARRIAK****Larrialdiak**

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
S.O.S. DEIAK 112

Guardiako Farmaziak**09:00etatik 22:00etara****Bagilaren 3tik 9ra**

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15
Tel.: 94 673 93 22

22:00etatik 09:00etara

Iruarrizaga. Amorebieta-Etxano.

Bagilaren 10etik 16ra

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1
Tel.: 94 673 93 95 eta 609 402 908

22:00etatik 09:00etara

Aranburu-Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

Bagilaren 17tik 23ra

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g
Tel.: 94 631 39 50

22:00etatik 09:00etara

Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.
Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan**22:00etatik 09:00etara**

Chicote. Kareaga Goikoa 50. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduru: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduru: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30 minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro. Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Artea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta 20:00.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Artea

Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45. Zapatuetan ez dago 05:45ekoa.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15 eta 17:45.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15, 14:15, 17:15 eta 20:15.

Bilbo-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15 eta 16:45ean.

Jaiegunetan (Arrigorriatik): 10:40, 13:40, 16:40 eta 19:40ean.

La Union* 94 427 11 11**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandioak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandioak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta Otxandioak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

www.begitu.org

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Kudeatzailea: Inigo Iruarrizaga.

Erredakzino taldea: Clara Luja Azpiri eta Irati Urien.

Maketazinoa: Inigo Iruarrizaga.

Publizidadea: Inigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Pablo Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte eta Eneko Iriondo (Dima), Alaia Ozerinjuregi eta Iraitz Sagarna (Igorre) eta Peio Murgoitio (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tiradea: 6.600 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

Babesleak:

Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



Bizkaiko Foru Alderdiak
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura



ZEURE BERBEA

Igorreko herriari

Igorreko EAJ-PNV-ren helburu bakarra herrian agertzen diran beharrian ahal dauan heinean soluzino bat emotea da, edota horretan laguntzea. Honako hau kontuan izanda, Igorren kalidazko hezkuntza bermatzea eta instalazino gehiago eta hobeak dituan eskola publiko baten alde lan egin dogu. Emoitzak hor dagoz: Hezkuntza Sailaren konpromisoa lortu da eskolako espazioaren arazoa ikertu eta etorkizunean konponbide bat emon ahal izateko. Baita Arantzazu eta Igorreko umeak Igorren matrikulauta gelditu ahal izatea be. Gure ustez, gai honek lanean jarraitutea eskatzen dau, ez besterik. Eta gu hor egongo gara; jenteari ardurak kentzea gure beharra dala uste dogulako.


IGORREKO EAJ-PNV

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEHIOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Begitxindor



Nork ez dau euki inoz begitxindorrik! Begitxindorra begindoan urteten dauen handitasuna izaten da (begitxindorra, agoskatuta). Batuaz, betor berbea erabilten da. Lehenago esaten zanez, begitxindorra okerreko lekuren batera begitutearren urteten eban. Gehienetan neska edo mutilen baten sexuagaz erlazonatutako gorputz-atalen bat: eperdi, titi...

ERETXIA

Bizitzaren defensea eta andron eskubideak

PPk Estatu espainiarraren hauteskundeak gehiengo absolutuaz irabazi zituane-tik asko izan dira krisiaren atxakiaz murriztu euskuezan eskubideak, baina, zoritxarrez, ez dabe politika murriztaile eta suntsiztaile amaitutzat jo. Androk gure oinarriko eskubideetako bat galtzeako arriskuan gagoz, hain zuzen be, haurdunaldia borondatez eteteko eskubidea. Oraingo honetan, atxakia ez da krisia izan, baizik eta etikaz mozorrotutako argudio ideologikoa: "bizitzaren defensea".

Andron ebazteko eskubidearen aldeko urteetako burrukearen ondoren, Estatu espainolean 1985ean onartu zan abortuaren legea. Abortua 3 kasutan despenalizau eban legeak: bortxaketak eragindako haurdunaldietan, fetoak arazo larriak dituan eta andrearen osasuna edo bizitzaren arrisku larria danean. Murrizketa askogaz onartu bazan be, abortu klandestinoagaz amaituten hasteko aurrerapausua izan zan, halan be, profesionalen atxilotetak eta mehatxuak ez ziran guztiz eten, eta abortuak kode penalaren barruan jarraitu eban.

2010ean, PSOEk bultzatuta, "abortuaren lege" barria onartu zan. Ezizen horregaz ezaguna bada be, legeak abortua ez ezik ugalketa eta sexu eskubideak garatzen ditu baita be. Gaur egun indarrean dagoan lege hau epeen legean oinarritzen da. Hizki txikitari sartu barik, orokorrean, lehenengo 14 asteetan andrea aukeratzeko librea da, 22. astearte andrearen edo fetoaren osasun edo bizi arriskua dagoanean abortau daiteke eta azkenik, hortik aurrera, abortua despenalizauta dago fetoan bizitzeagaz inkompatibleak diran anomaliak edo oso arrisku handiko gaixota-



IDOIA EHIZMENDI

Noka talde feministako kidea

suna topetan danean.

Gallardon ministroak egin gura dauan erreformearan arabera abortua ez da delitua izango bortxaketa edo amaren osasun arriskuaren kasuetan, argi itxiz honeek be "lupaz begitaruko dituela". Aukera librea edo fetoaren arriskuan amaren ebaztea guztiz ezabatuko leuke erreformeak.

2010eko legea perfektoa ez bazan be, orain ekarri gura deuskuenak balizko izaki baten bizitza ipinten dau andron ebazteko eskubidearen gainetik, jakinda, horrek ez dauala abortuagaz amaituko, erreformeak klandestinitadeara, arriskua eta sufrimendua baino ez dau ekarriko.

Gallardon ministroaren mehatxuak batera, eskoitiarrak eta eleiza katoliko atzerakoeinak "bizitzaren aldeko" kanpaina izugarriakaz bete ditue komunikabideak, sare sozialak eta kaleko panel publizitarioak. Baina, zelango legitimidadea daukie bizitzaren bermatzaile eta defendatzaile gisa agertuteko? Historiak argi erakutsi deusku zelango sarraskiak egin diran erlijino katolikoaren izenean. Horra hor, inkisizinoa, kruzadak edota Ameriketako kolonizazinoa. Baina hain urrun jo barik, hortxe daukagu espainiar zein amerikar diktadurari eleiza katolikoak eskeini deusku babes, edo antisorgailuen erabilera pekatua dala aldarrikatuz HIESak Afrikan eragindako mi-loeka hildakoak.

Amaitzeko, hipokresia horren egungo adibide bi ekarri gura dodaz hona, Savita eta Beatriz. Savita 31 urteagaz hil zan Irlandan joan dan urrian medikuak ez eutsielako abortua egin gura izan, nahiz eta jakin andra oso gaixorik egoala eta fetoa ez zala bizirik aterako. Bakarrik fetoaren tau-padak eten ziranen saiatu ziran Savitaren bizitza salbetan. Bera ez zala katolikoa aldarrikatu bae-ban be, Irlandako lege katolikoa inposau eta septizemiaz hiltzen itxi eben.

Beatriz, 22 urteko El Salvadorreko gazteak abortu terapeutikoa eskatu dau lupus-a daukalako eta bere bizitza arrisku handian dagoalako. Gainera fetoak burmuinaren zati bat faltan dauka eta ezin izango da bizirik jai. Justiziako Gorte Gorenak ez dau bere babes eskaerea onartu eta ez deusie abortua egingo debekatuta dagoalako.

Eta dana "bizitzaren defensearen" izenean.

BATZ 50 urte

BATZ, S. KOOP.
Torrea auzoa, 32
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

IZAN GINAN...
...BAGARA ETA IZANGO GARA

Enbata
Batza gaita

MONDRAGON 2013

LUMATUTEN**IRATXE ETXEBARRIA****Zuri gazte,**

Zortzi urte Euskal Herri-
tik kanpo ibili dan gazte
batek idazten deutsu.
Gazteak kanpora, atzerira, alde
egin behar dabela, entzun dot
azkenaldian sarri. Gizartearen-
tzako galera bat izango balitz lez.
Galera bat izango da, horreetako
gehienak kanpoan gelditutea
ebatzi ezker. Ostein aberas-
garria da, gizartearentzat eta zer
esanik ez, esperientzia horren
protagonistentzat.

Guk ikasketak amaitu eta la-
nean hasi ginanean, normala
zan pisu bat erosi edota fami-
liaren lur sail baten etxe bat
egitea. Ikasketetan ona ez zanak
be, errez topetan eban lana,
eraikuntza arloan eta eraikuntzari
lotutako beste batzuetan. Ikaske-
tak euki edo ez, lanean hasi eta
hipoteka bat kontratetea dana
zan bat. Banketxeak, maileguak
sano baldintza onetan emoten
ebezan. Eta apostu hori egin
ebanak, etxe ederrakaz topau
dodaz, zati handi bat pagauta
daukie, eta batzuk, umeak be


hazita.

Maileguen kopuruak gora egin
ebanean, mailegua eukan gaz-
teen kopuruak be bai. Orduan ez
neban egoera haregaz arduratu-
ta egoan abots askorik entzun.
Gazte askok, mailegu horreek
ordainduteko, ez eben lanez
aldatu edota ikasteko lanaldi
murrizturik eskatuteko aukerarik.
Hipotekea ordaindu behar zan.

Gazte askori hegoak ebagi ja-
kiezan, politika ekonomiko hare-
kaz. Eta gaur, politika ekonomiko
hareek diseinatu eta martxan jarri
ebezanen oinordekoak, ardu-
ratuta entzuten dodaz gazteak
kanpora doazelako.

Gazte, adorea eta aukerea
badaukazu, zoaz. Ikasiko dozuz,
ez zure ofizio edota ikasketen
inguruko gauza barriak bakarrik,
ikasiko dozuz bizitzan dirua bai-
no erabilgarriago izango jatzuzan
hainbat gauza. Hori bai, ez ahaz-
tu nongoa zaran.

Zuri agintari; itxi gazteai joaten,
baia egizu zure esku dagoana
bueltan etorri daitezana. Espe-
rientzia handidun gazteak iraba-
ziko dozuz eta bide batez, gizarte
osoak irabaziko dau.

ZERTZEAN**PELLO ARTABE****BEGI TXINDORRA****"Zapa"**

Igorreko zapatarari konpontzaile guztiak ez dabe "erretiroa hartu" BEGI-
turen aurreko zenbakian agertu zan moduan. Zapa gatxizenez eza-
gutzen daben Luis Mari Iturbek jarraituten dau zapatak konpontzen
eleizarako bidean dagoan bere zapatadendan. Iturbe San Kristobal au-
zuneko Ubite baserriko semea da eta beti bizi izan da Igorren.

"1968an, hamabost urte gaz, hasi nintzan zapateru. Hirurogei urte
daukadaz orain, eta jubiletea pentsau be ez" dino.

Krisiaren eragina dala eta, Iturbe ez dator bat beste konpontzaile bat-
zuekaz. "Krisiagaz txarrera egin dau negozioak. Jenteak zapata merkeak
erostea gurago dau konpontzea baino".

Esaera zaharrak dinoanez, zapatak zuriak paperez, euria danean ba-
pez. Eta ez dau atertzen.



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
LORAZAINTZA
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48 142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisci.com

agoa Ortodontzia
hagin klinika
Implanteak
Estetika
Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia
Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Kalegata Zerbaketa 101
R.F.S. 21/06

Ametzola
Landetxea
Ametzola 1-1
48499 Zeberio
629 429 870
www.ametzola.net

IGORRE

Hamar egunez jai

Bigarren urtez egingo da Mile Baietz Eguna Igorreko jaietan.

Gure bailarako herrietako lehenengo jaiak dira Igorrekoak, ondino udabarrian, baina uda usaina dakarre jai giroagaz batera; izan be, erromeriak, kontzertuak eta gastronomia lehiaketak udagaz lotuta dagoz imajinario kolektiboan.

Erredakzioa

Jaietako 10 egunotan, danerik dago eta ez dira faltako ez horreek, ezta umeentzako jolasak, kirolak edo euskerearen aldeko eguna. Igazko moduan Intxaurbizkar Kultur Elkar-

teak II. Mile Baietz eguna antolatu dau, euskerearen alde kilometroak egiteko hilaren 15ean. "Goizeko 09:00etan hasita, iluntzeko 20:00ak arte, gixtiendik 1.500km. ibiltea izango da desafioa. Partaide bakotzak kilometro bat egin beharko

dau eta hortik gora bakotzak gura edo ahal dauana. Parte hartzeako guneetan, egin diran kilometro edo kilometroak erregistretako txartela bananduko dogu. Km bakotxa puzzle zati bat izango da eta egin ahala puzzlea osotuten joango da" azaldu dabe Intxaurbizkarrekoak.

Kirolai jagokienean, futbol, pelota, rugby eta bizikleta probak dagoz egitarauan. Erromeriak, jaietako bariku eta zapatuetan izango dira, eta Exaixuk, Vendettak, Punto Muertok, Willis Drummondak, Cobrak, The Jekoskorsek eta EH Sukarrak kontzertuak eskeiniko dabez Igorren.

Bagilak 7, barikua

15:00etan, bazkaria bakotzak ekarritakoagaz txosnagunean. Euria bada, udaletxeko arkupetan.

17:00etatik 18:00etara, Zaztaparrak umeentzako jolasak txosnagunean.

18:00etan, gaiteruak eta Larrain jantza txosnagunean.

19:00etan, txupina.

20:00etan, koadrilen arteko olinpiadak. Gurasoak umeen karroakaz lasterketea, txosnagunetik bidekurutzera. Saria pixohialak. Karrokar-rerathloia Lehendakari Agirren, kioskoko bidekurutzean hasi eta txosnagunean amaituko da.

20:30ean, kalejirea Fabe de Fuka elektrotxarangeagaz.

21:00etan, erromeriak Garilak 26 taldeagaz.

24:00etan, Zu bai zu, talentu lehiaketea. Ostean DJ Bull.

Bagilak 8, zapatua

09:00etan, futbol 7 torneoa.

12:00etan, paella lehiaketea Olabarriko zirkuituan.

14:30ean, paellen aurkezpena.

16:00etan, Bizkaiko Rugby zazpi kopa. Neskak eta mutilak San Txisme Rugby zelaian.

19:00etan, pelota jaialdia. Kadeteen arteko partidua eta profesional ohien partidua.

20:00etan, San Anton Abesbatza, Santurtziko Abots Zuriak eta Luis Iruarizaga Abesbatza. Kultur Etxean.

23:00etan, kontzertua Exaixu eta Vendetta. Ostean, erromeria Zirkinik bez taldeagaz.

Bagilak 9, domekea

11:00etan, III. Mendi Bizikleta Mar-txa herrikoa.

19:30ean, Arantzarte jantza taldearen emonaldia goiko plazan.

Bagilak 10, astelehena

17:00etan, umeen karaokea udaletxeko frontoian.

18:00etan, spinning udaletxeko plazan. Ostean, aerobic adin guztietarako.

19:00etan, futbito txapelketako finala.

Bagilak 11, martitzena

18:00etan, Arratiako Musika Eskolako emonaldia Kultur Etxean.

18:30ean, Frontenis txapelketako finala udaletxeko frontoian.

19:30ean, Arratiako Musika Eskolako emonaldia Kultur Etxean.

Bagilak 12, eguaztena

17:00etan, umeen play-backa udaletxeko frontoian. Eguraldi txarra bada Kultur Etxean.

18:00etan, triki poteoa txosnagunean hasita.

21:00etan, herri afaria Olabarriko aterpean. Gero, txosnagunean showpresa.

Bagilak 13, eguena

11:00etatik 13:00etara, Zuresku egurrezko jolas tradizionalak eta umeentzako puzgarriak.

11:00etatik 19:00etara, Txu-txu trena AMEk antolatuta. Urtekerea orduro Garbe eta 105 bitarteko parkinaren ondotik.

16:00etatik 18:00etara, Zuresku egurrezko jolas tradizionalak eta Zaztaparrak.

19:00etan, Astrapalea Musika Eskolaren emonaldia txosnaguneko eszenalekuan.

Bagilak 14, barikua

17:00etan, tortilla eta makailao txapelketea Olabarriko zirkuituan. AMEk sorkiak bananduko ditu.

19:00etan, tortillen aurkezpena.

19:30ean, makailaoaren aurkezpena.

22:00etan, kontzertuak Punto Muerto, Willis Drummond eta Cobra. Ostean erromeria Izargi taldeagaz.

Bagilak 15, zapatua

Igorre euskerearen alde II. Mile Baietz Eguna.

Goizeko 09:00etatik iluntzeko 20:00ak arte. Hasikerea eta amaierarekin Kultur Etxeko plazan. Antolatzaile Intxaurbizkar Kultur Elkarteak.

12:00etan, patinaketa eskoletan, ugerketa taldeak antolatuta. Jolasak patinetan, altxorraren bila eta orientazio jolasak.

17:30ean, umore rallya txosnagunean hasita.

18:00etan, pelota jaialdia. Igorreko torneoko finalak eta promesa mailako pelotarien erakusketak partidua. Izei Gomez – Aitor Zilaurren Imanol Arrese – Inigo Markina.

18:00etan, Kanpanoloak-en umeentzako antzezlan txosnagunean.

22:00etan, kontzertuak The Jekoskors, EH Sukarra. Ostean erromeria, Honat taldeagaz.

Bagilak 16, domekea

10:30ean, bizikleta lasterketea, XIX. San Antonio Saria. Gazteak.

13:00etan, Areatzako Bandaren kontzertua Kultur Etxean.

14:00etan, jubiladuen bazkaria eta karta txapelketak.

19:00etan, erromeria Jokaldi taldeagaz AMEk antolatuta. Bitartean koadrilen arteko olinpiaden sari banaketea eta zozketea.

19:30ean, bals lehiaketea.

20:00etan, txokolatea Beinke merkatarien euskera taldearen eskutik.

IGORRE

Otua taldeak Igorre II zabortegia erosi dau

Erredakzioa

Igorre II inerteen zabortegiko lurrak Otua taldeak erosi ditu. Legeak baimenduta, Garbikerrek subastara atera zituan lur horreek. Igorreko Udalak kontrolau gura dau zer erosten dan bertara eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Saileko Josu Madariagagaz batu da Igorreko alkatea, sarritasun jakin bateagaz azterketak egin ahal izateko zabortegi honetan.

"Jakin genduan Otua taldeak erosi ebala zabortegia 14 miloe ordainduta. Otua, behin metala eta kenduta, kotxeak birrindu egiten ditu, batez be. Birrindutakoa zementereetara saltzean dabe eta zementerak-eta gura ez dabena, inerte moduan ekarten dabe hona. Orain arte be, hona ekarri izan dabe. Garbikerren datuen arabera 100 mila tonatik 60 mila tona, enpresa horrek ekarri izan dauz" azaldu deusgo BEGITURI Beinat Anzola Igorreko alkatea.

Beste metal batzuen artean,

aluminioa birzikletan dau eta talde honek "aluminioa birzikletako prozesuan hondakin salinoak sortzean ditu, arriskutsuak. Hedabideetan agertu da 14 miloetan saldu dala lur hau eta bere egunean 9 miloe euro inguruko obrak egin zirala. Garbikerrek 6 miloe euro irabazi dauzala. Igorreko eremu bat apurtu edo hondatutearen truke bada, ez gagoz bape be ados eta horren gainean be berba egingo dogu Jaurlaritzakoak" dino alkatea.

Igorre I urte amaieran zarratuko da

Aparion zabortegi bi dagoz. Igorre I-ek uri hondakinak jasoten ditu eta Igorre II-ek inerteak. Uri hondakinetak zabortegia urte amaieran zarratuko da. "Horretan gabiz Garbikerregaz, aurreko legegintzaldian sinatutako hitzarmena hori zan, eta beteko da" dino alkateak.

Transferentzia zentrua bagilan hasiko dirala egiten dino Anzolak.

ZEBERIO

Barauskarriak, txistu soinuak eta gehiago

Erredakzinoa

Bagilan, auzuneetako jaiak be ospatzen dira ermiten inguruetan. Izan be, auzune gehienetan ermitaren bat dago santu baten izenpean. Santu horren eguneko aurreko edo osteko astegoienean, mezea eta barauskarria egoten da, askotan txistua edo trikitixearen soinuak lagunduta. Holan, hilaren lehenengo bi egunetan mezea eta barauskarria egon ziran Zeanuriko ermita bitan: Uribe auzuneko San Urbanen eta Iburguen kofradiako San Blasen, hurrengo hurrengo.

Igorreko Gezala auzunean Jesusen Bihotzari eskeinitako ermitea dago. Maiatzaren azken egunetan ospatu zituen jaiak hangoak, sano egitarau originalagaz. Holan, aire zabalean eta gaugiroan, *Bypass* pelikulea ikusteko aukerea egon zan barikuan. Hurrengo egunerako, barriz, tortilla eta paella txapelketak, mus eta briska txapelketak eta ume eta nagusientzako jolasak antolatu zituan Basahuntz Ekinean alkarteak.

Zeberio Ermitabarrin, San Antonio jaiak ospatzen dira eta egitarau oparoa prestatu dabe bertakoak.

Bagilak 9, domekea

09:00etan, Zeberioxtrem BTT martxea.

Bagilak 13, eguena

12:30ean, mezea.

13:00etan, barauskarria.

Bagilak 14, barikua

18:30ean, txupina bota.

18:30ean, pelota partiduak.

21:00etan, sardina-jana.

21:00etan, orkestra.

24:00etan, rock jaialdia.

Bagilak 15, zapatua

12:30ean, puzgarriak.

13:30ean, jantza moderno erakustaldia Austarrik antolatuta.

13:45ean, poteoa.

14:30ean, bazkaria

16:00etan, puzgarriak.

18:00etan, serigrafia.

18:00etan, bola botaldia.

19:30ean, herri meriendea.

20:00etan, Ardoa Barrura txarangea.

23:00etan, erromeria Ezten Giro taldeagaz.

02:00etan, txokolatea.

Bagilak 16, domekea

12:00etan, pato lasterketea.

13:00etan, Arratia Musika Eskolako jantzeri gaztetxoak eta trikitilariak.

18:30ean, Mariatxiak.

20:00etan, argazki lehiaketaren sari banaketea.

20:30ean, zozketea.

ARRATIA

Urkiolara, Paduako San Antonioren errogatibea

Erredakzinoa

Bagilaren 15ean, zapatuan, egingo da Urkiolara, Paduako San Antonioren santutegira errogatibea. Tradizioa jarraituz, San Antonio egunaren osteko zapatuan izaten da arratiaren errogatiba eguna. Lehenago herri bakotzak bere errogatibea antolatzen eban, baina azken urteotan, Arratiako parrokiak guztiak aldi berean joaten dira Urkiolara, bailarako abadeak batera. Horretarako, Mankomunitateak autobus bat ipiniko dau gura dabenentzat. Oinez joan gura dabenentzat, barriz, Zeanuritik eta Dimatik Urkiolara oinezko ibilaldi gidatuak prestatu dira.

Aurtengo errogatibea "Senidea ala dirua" lemapean egingo da.

Egitaraua

"Hamaikak baino lehentxoago, ondoetorria emongo jakie oinez, autobusean edo euren kotxeetan

Urkiolara hurreratutako arratiar erromesai. Ondoren, eta aspaldiko usadioa jarraituz, letaniak abestuz sartuko dira erromesak Urkiolako Santutegira, 11:00etan Arratiako abadeak emongo daben mezea ospatzeko. Meza ostean, Bediako parrokiako umeak eta gaztetxoak aurtengo errogatibearen lemeagaz bat datorren sinbolo bat eskeiniko deutsee Urkiolara hurreratu diranai. Eta ekitaldi honegagaz egitarauari amaierara emongo jako. Autobusean etorritakoak 13:00etan euren herrietara itzuli dira" Arratiako eleizako iturriak jakitera emon dabenaren arabera.

Dimatik eta Zeanuritik abiatuta, oinez ibilaldi gidatuak egiteko aukerea be izango da, holan, Arratia eta Urkiola lotzean dauzan bide klasikoetako bi ezagutze-eremoteko. Urtekerea Dimako plazatik goizeko 06:00etan izango da, eta Zeanuriko plazatik 08:00etan.

ARRATIA

FCC Alfus eta Incoesako beharginak bitartekaritza eskatu deutsie Mankomunidadeari

Maiatzaren 28an, Incoesako beharginak eta Alfus

FCCko enpresa batzordeak Mankomunidadeari eskatu

outsien bitartekaritza beharra egiteko behargin eta

enpresen artean eta bagilaren 8an Bedian egingo dan

manifestazioan parte hartzeako.



Alfus eta Incoesako langileak Mankomunidadean.

Erredakzinoa

Deialdi hau, ez bakarrik Mankomunidadekoai, arratiar guztiak luzatzen deutsee enpresa honeetako beharginak. Alfusekoak hamasei kaleratze ekiditeko eta lan-baldintzak okerrera ez egiteko dagoz burrukan; Incoesakoak, Incoesa zarratu ez dagien.

Incoesako lanpostuak Extremadurara

LABek jakitera emondakoaren arabera, Bediako lantokia zarratu, eta Plasencian (Caceres) dagoan jaube bereko ETESARA lekualdatu gura dau produkzioa Incoesako zuzendaritzaekin. Holan, behargin gehienai Plasenciaraldatzen jakie lanlekua eta gixi batzuei Soriana. Hori dala-eta, greba mugabakoan hasi ziran maiatzaren 27an. Lekualdatze kolektiboa, "mozorrotutako kaleratze kolektiboa" da LAB sindikatuaren eretxian.

Extremaduran edo Sorian lanpostuak mantenduteko aukerea emoten deutseeela baina, "soldatearen % 20, % 30 edo kasu batzuetan % 50eko jaitsiera onartu ezker" beharginak Mankomunidadeari helduarazotako oharrean jakitera emoten dabenaren arabera. Maiatzaren 27an enpresek Bedian jarraitu

dagian, greba mugabakoari ekin eutsien langileak. "Urteetan Incoesan lortutako etekinak Etesako plantan inbertidu dabez, 20 milioe euro enpresearen arabera, bitartean Bedian, euro miserable bat bera be ez dabe sartu" salatuten dabe Incoesakoak.

Hamasei kaleratze ebitetako burrukan

Alfus FCCko beharginak greba mugabakoan dagoz aprilaren 29tik eta enpresa komiteko kide bi itxialdia egiten dagoz enpresan bertan maiatzaren 14tik.

Gatazka luzea da Alfusekoa eta "gatazkearen nondik norakoa ezagutzeko, urtebete atzera begiratu behar da; orduan zuzendaritza neurri-sorta bat aurkeztu eutsan Batzordeari, eta neurriak ezarri ondoren hitzarmena negoziatuko ebala agindu eban. Alfus-en hitzarmenak 2011ko abenduaren 31n galdu eban indarra" Alfus Enpresa Batzordeak Mankomunidadeari aurkeztutako idatzian azaldukoaren arabera. Negoziazioak garagarrean hasi ziran baina zuzendaritza berregituratze baten zitala berregituratze baten mehatxua eginez, dinoe Enpresa Batzordekoak. "Sei hilabete geroago, Zuzendaritza langileen ordezkari

riai deitu eutsen, eta amaierako erregulazio-espeditente bat aurkeztu eutsen. Espeditente horrek 18 langile kaleratzea eta lan-baldintzak larri aldatzea ekarri zituan. Enpresek amore emon dauan puntu bakarra kaleratze-erregulazio bi kentzea izan da; gainerako gaitan ez dau zirrikitu bat be itxi gura izan bestelako aukerarik bilatzeko".

Bizkaiko metala burrukan

Arratiako enpresa honeek greba mugabakoan eta mobilizazioetan dagoz eta bagilaren 8an manifestazioa egongo da Arratian, bertako lanpostuen defentsan. Dana dala, Bizkaia osoan mobilizazioak egitera deitzean dau LAB sindikatuko metal arloak.

Maiatzaren 17an, LAB sindikatuko Bizkaiko delegatuak batu ziran Igorren. "Bizkaiko mahai sektoriala blokeata dago eta eta horren aurrean mobilizazioetara jo behar dala ikusten dogu, ez dagoalako aukerarik mahaian ezer gehiago negoziatuko" azaldu eutsan BECITURI Jabier Alkorta Lea-Artibaiko arduradunak.

Mobilizazio horreek aurrera aterateko beste sindikatuakaz bat egitea inportantetzat jotzen dau LABek. "Mobilizazio indartsuak egin behar doguz hemendik bagilera. Grebak be ez doguz bazterten. Hau guztiau saiatuko gara beste sindikatuakaz adosten, beste sindikatuaren atxekimenduak behar doguz aurrera egiteko planteamentu honegagaz: bagilan kalera atera behar gara".

ZEBERIO

Herriko Taberna errentan hartzeako epea zabalik

Erredakzinoa

Zubialdeko Herriko Taberna errentan hartzeako eskeintzak aurkezteko epea zabalik dago bagilaren 17ra arte. Errentearen gixienezko eskeintza 500 eurokoa izango da eta kontratuak lau urteko iraupena izango dau. Udaletxean jaso daiteke baldintza orria eta proposamenak Udal Erregistroan aurkeztu behar dira.

ARRATIA

Maiatzak 30eko greba "arrakastatsua" Arratian

Maiatzak 30eko grebak Arratian Bizkaian baino segmentu maila askoz be handiago izan eban sindikatu deitzaileen arabera.

Erredakzioa

Industrian eta komertzioan izan eban segmenturik handiena. Hezkuntzan be handia izan zan eta administrazioan desbardina izan zan grebaren eragina herrien arabera. Mobilizazioak jagokonean, Igorren egin zan manifestazioan, "300 edo 350 lagun egon ziran eta Igorre herria guztiz itxita egoan" ELA sindikatuko Isa Garciaeren arabera.

Industrian segmentu handia izan eban grebak Arratian. Izan be, "jenteak hur sentiduten dau" murrizketa honek izan daben eragina eta haserre dago, LAB sindikatuko Juan Karlos Vizanen esanetan. Erexi berekoak dira ELA sindikatuak, "Industrialdeetan segmentua handia izan zan, enpresa handiak, adibidez: Gea Iberica, Hierros Sancho, Araluce,

Ormazabal eta Tecnichapa (bulegoak izan ezik), Aliasa, Cementos Lemoa, Prefabricados Lemoa, eta abar, zarratuta egon ziran. Eta enpresa ertain eta txiker gehienak be, zarratu egin eben. Igorreko industrialdea, Arteako Bidosola eta Lemoako Mendieta poligonoetan ia dana egon zan zarratuta. Eta presentzia berezia be euki eben Alfuseko langileak eta Incoesako langileak Igorreko arrastiko manifestazioan euren pankartak errotan".

Komertzioak be zarratuta egon ziran Igorren. Artean, Areatzan, Beldian, Diman, eta Zeanurin, "dana egon zan zarratuta, ogia be bezperan erosi genduan" dino Zeanuriko bizilagun batek.

Sektore publikoa

Sektore publikoaren erantzuna be handia izan zan hezkuntzari

jagokonean, Arratia Institutuan irakasleen % 80k egin eben greba eta "hamar bat ikasle baino ez ziran egon", bertako iturrien arabera. Areatza, Dima eta Zeberioko eskoletan, irakasle guztiak egin eben greba eta % 80k baino gehiago Igorre eta Lemoako eskoletan. Artean, barriz, 5 irakaslek egin eben greba eta 4k ez.

Diman, eta Ubideko udaletxeetan erabateko segmentua izan eban grebak. Igorren eta Lemoan, bat izan ezik, beste behargin guztiak egin eben greba (% 95ek eta % 94k, hurrengo hurrengo). Artean, bost beharginetik bik egin eben greba (% 40k) eta Arantzazun eta Areatzan, barriz, udaletxe langileen % 75 beharrean egon ziran.

Mankomunidadeari jagokonean, % 90ek egin eben greba, bertako iturrien arabera.



Igorreko manifestazioa.

LEMOA

Zorra, ia % 60an txikitu da

Erredakzioa

2012. urteko emoitza ekonomikoaren barri emon eben prensarean Saioa Elejabarrieta Lemoako alkateak eta Aitor Erauzkin alkateordeak, maiatzaren 21ean; eta sano pozik agertu ziran "egindako lanagaz eta lortutako emoitzeagaz". Izan be, 702.500 euroko zor estrukturala 262.725 eurora jeistea lortu dau Udalak ia urte bitan.

Lemoako Udalak daukan zorra, ez da kanpoko zorra; hau da, hartzekoduna be Udala bera da. "Lurzoru batzuk saltzean hartutako dirua da hau, derrigor erabili behar dana inbersinoetan. Udal kontuak negatiboan hasi ziranean, gastu arruntak ordaintzeko hasi zan erabilten diru hori. Diru hori itzuli behar da" azaldu eban Erauzkinek.

2012ko urtea 489.000 euroko superabitagaz amaitu eben eta diru horregaz pagau da zor estruktural hori.

Diru sarrerak handitu


Igaz egindako aurreikuspenak baino handiagoak izan ziran diru sarrerak eta horrek lagundu dau superabita izaten, baina ez da izan hori bakarrik. Elejabarrietaren arabera, zorra mu-

ritzitu dabe "zerbitzuen kopurua eta kalidadea hobetuta". Horretarako, alkatearen soldata, zinegotzien dietak eta alderdi politikoak jasoten daben dirua murriztu dabe, "zentsubako" eta "interes orokorrari erantzuten ez eutsien" gastuak kendu, eta "errealidadean oinarritutako zentzuzko aurreikuspenak" egin ditue.

"Udal kudeaketearen alor guztietan bultzatu dogu gure eredu politikoak; partehartzean, erantzukizunean eta gardentasunean oinarritutakoak" eta aurrekontuak diseinatzerakoan "herriaren beharizanak eta eskaerak kontuan hartuta egin dira". Aurrerantzean be bide horretatik jarraitzeko asmoa adierazo eban alkateak.

Ikerketa ekonomikoa

Azken 6 urteak ikertzen dituan kanpo azterketa ekonomikoa egiten dabil Udala eta berandu baino lehen horren barri emongo dabela esan eban alkateak. "Esan beharra dago azterketa hau egiteko hainbat oztupo topau doguzala, eta ondorioz azterketen emoitza guk gura baino beranduego izango doguzala". Izan be, urte hasikerarako amaituta eukitea espero eben eta udara arte ez da azterketa amaituta egongo.



Saioa Elejabarrieta alkatea eta Aitor Erauzkin zinegotzia.

ARRATIA

Abortuaren erreforma legeari aurre egiteko kanpaina gurean

Erredakzioa

Haurdunaldiaren Borondatezko Etenaren eta Sexu eta Ugalke-ta Lege Organikoan PPK egingo dituan aldaketak andren askatasunaren kontra doala eretxita, estatu osoan mobilizazioak egiten dabil mobimentu feministea. Arratiako taldeak, Bizkaikoak koordinatuta, kanpaina bat abiatu dabe andren sexu eta ugalketa eskubideen alde jentea mobilizatu daiten. Holan, gaiaren inguruko *Historia de un secreto* dokumentala ikusgai izango da hiru herritan

eta andren ebazteko eskubidearen aldeko pankartak ipiniko dira herri guztietan.

Euskal Herri mailan, Donostian martian egin zan mintegi baten, koordinetako herrialdeka alkatzen hastea ebatzi zan. Arratiako taldeak parte hartzean dabe Bizkaiko koordinazio plataforman, erreforma honeri aurre egiteko kanpainan.

Eztabaida guneak Arratian

Arratiako kanpainari jagokonean, "orain dala hilabete pare bat-edo, Igorreko Kultur Etxean abortuaren

inguruan eztabaida gune bat egin genduan, andra talde guztiakaz. Hori izan zan abiapuntua. Orain *Historia de un secreto* dokumentala hiru herritan jartzea ebatzi dogu; Areatzan, Igorren eta Lemoan, hain zuzen" azaldu deutso Idoia Ehizmendi Nokakoak BEGITURI.

Areatzan, maiatzaren 21ean izan zan emonaldia eta Igorren 29an. Lemoan bagilan egongo da dokumental hau ikusteko aukerea.

Herri guztietan, Zeanurin izan ezik, pankartak ipiniko dira. "Pankartak debekatuta dagoz Zeanurin eta ez dau irauten pankarta

batek. Baina beste herri guztietan pankartak egingo dira gaia presentegon daiten. Kartelak be egingo doguz Euskal Herri osoagaz batera eta gero geuk geureak be egingo doguz. Txapak be bananduko dira".

Jaietan sexismoaren kontrako protokoloa ezarri gura dabe Nokakoak txosnetan.

Igaz protokolo bat egin eben txosnetan eukiteko. "Aurten Nokakoak Jai Batzordera joan gara, gure proposamena kontatuz. Eta kartelak aterako dira taberna eta txosnetarako; eraso sexista, arrazista eta homofobo bako guneak dirala esanez".

Haurdunaldia eteteke legeak

Abortuaren legea 1985ean onartu zan Espainian. Lege honeri esker, lehenengoz haurdunaldia eten eitekean legearen barruan,

haurduna hiru egoera honeetako baten izan ezker: bortxaketa baten biktima bazan, haurdunak osasunerako edo bizitarako arriskurik baeban edo fetuak malformazioak bazituan. Horregaitik baldintzen legea deitu jako lege honeri.

2010ean, legea erreformau egin zan, aukerea zabalduz. Haurdunaldiaren hamalagarren astera arte, esaterako, libre da haurdunaldia etetea. Haurdunaldiko 22. astera arte be posible da abortatzea, amarentzat edo fetuarentzat arriskurik bada. Epeen legea deitu izan da hau.

Orain, baldintzen oinarritutako legera bueltau gura dau PPko gobernua. Honek, 30 urteko atzerapausua andren eskubidei jagokie-nan suposatuko leuke, feministen eretxian.

IBILBIDEA

Astondoaren ibilbide kultural mitologikoa

Badagoz Zeanurin urtean-urtean ehundaka ibiltari erakartzen dituen ibilbideak; Zeanuriko ermiten ibilaldia, errotena edo Zeanuri-Ubide Larre Mankomunidadearena, barbarako. Horreetan, mendiaz gozatzeko eta ondare kulturala ezagutzeko aukerea egoten da. Badagoz baita be beste ibilbide eta leku batzuk ahazturan jausitakoak eta bide bazterreko bedarrak, karabiak eta koba sarrerak estaltzen ditu.

Iturriza baserriko Pabi Astondoak proposatzen deusku ibilbide horreetako bat.

Erredakzioa

Goiz bateko ibilaldian, paraje bakarti zoragarriak, lau errota, sasiak ostondutako karabi bi eta laminen eta Gizotsoren ezkutalekua ei zan koba bat bisitauko doguz.

Lau Errota eta jauregi bat Uriben

Zulaibartik Uriberantza doan kaminotik sartu eta gitxira errota bi dagoz. Zulaibar eta Axpeko errota. Zulaibarreko erroteak 1976an itxi eutsan lan egiteari eta

2006an etxebizitzarako egokitu eben, Jon Urutxurtu historialariak emondako informazioaren arabera. "Axpeko errotearen pre-searen eta kaltearen arrastoak baino ezin daitezke ikusi, orain dala gizaldi bat baino gehiago itxi eutsan lan egiteari eta Axpeko jauregiaren jabetzea izan zan" azaltzen dau Urutxurtuk

Jauregia be bada Axpen eta "tradizioak dino Errege Katolikoak, Isabel eta Fernando, lo egin ebela bertan. Jauregiaren ondoan, San Pedro eleizea dago, eleiza partikularra zana" dino

Pabi Astondoak.

Atxelorrirantza jo eta ur-salto eder bat ikusten da urrutira. "Hemen barrankismoa egin lei. Inor ez da ibiltzen inguru honeetatik: orkatza, basahuntza, edo lepuzurria ikusi ahal dozuz hemen, baina persona gitxi. Jentea Asturiasera edo holako lekuetara joaten da, hona ez" dino Astondoak.

Apur bat urrinago, Intxaurbeko errotea eta Atxitiko errotea. Intxaurbeko erroteak XIX. gizaldian itxi eutsan behar egiteari eta errotea egoan inguruan dagoan etxea Intxaurbeko errotea izenez ezagutzen bada be, inoz ez da errotea izan, Urutxurtuk irakatsitakoaren arabera. Uribe auzuneko lau errota honeek, erroten ibilbidearen barruan dagoz eta eza-gunak izango dira Ipizki taldeak antolatutako Zeanuriko Erroten



Pabi Astondoak.



Mantsogaraiko karabia.

ibilbidea inoz egin dabenentzat, baina seguru asko, ondotik pasau arren, ibiltariak ez dau ezagutuko bedarrak estaltzen dituan beste altxor batzuk, Mantsogaraiko karabia, barbarako.

Atxelorriko ur-saltoa eta karabiak

Atxelorriko ur-saltoko bidean gauza asko dagoz ikusteko: Atxederreko hatxa, barbarako; edo legorrak, ahuntzak egoteko babesleku naturalak. Heldu gara Atxelorriko ur-saltoa ondo ikusten dan lekura. "Hau leku peligrrosoa da. Gu,

mutikotan, hemen ibiltzen ginan ahuntzakaz eta urtean-urtean egoten zan baten bat hanka apuruta, edo beste zeozer. Handik behetik hona gora igoteko errekatik, igual sokak bota beharko litzatekez". Ur-saltoa ikusteko sasoirik onena, abendutik maiatzera arte dala dino Astondoak; izan be, ur gehiago dagoan sasoi da hori.

Hemendik hur karabi bi. Mantsogaraiko karabia gatxa da ikusten, sasiak estaltzen dabe eta. Beste horrenbeste gertatzen da Auskuxeta karabiagaz. Karabiak txingorriagaz eginda dagoz. Zorritarrez Auskuxetakoa "orain dala urte batzuk, eskabadoreak apurtu egin eban".

Pabi Astondoak karabiok erre-kuperetea beharrezkotzat jotzen dau. Ez litzatekela diru askorik behar dino: bedarrak kendu eta eskabadora txiker bat hondoraino heltzeako baino ez.

Laminategietako kobea

Areatatik Barazarrera doan bideko bihurtune baten, basora sartu behar gara kobara ailegetako. Lehenago ingurua deskribatzen dau gure gidariak. "Hau deituten da Beleku. Eta hor gainean dagoana Kerexeko hatxa da. Beste alderdian Mendipe ikusten da".

Zanburu eta Lamindao ingurua koba eta lezez beteta dago. Leku arrisksua gaubez edo ume izanda ahuntzatan ibilteko. Jokiera arrisksuak prebeniduteko, sasoi bateko amak mitologiara jotzen eben, koba eta lezetan laminak eta beste monstro batzuk bizi zirala esanez. Izaki honeek beti min egiteko prest egozan, gainera. "Mutikotan eta etorten ginan hona, ahuntzetan Laminategietako kobara. Amak kontetan euskun, Laminak hemen egiten ebela lo. Eta hemendik urten eta joaten zirala personak eroaten".

"Gero be hemen be ibiltzen zala Gizotsoa kontetan eban amak. Gizotsoak begi bat ei eukan bekoki erdian, eta hanka bakarra. Hemen egiten ebala lo, esaten eban amak, eta hemendik urten eta behin joan zala, Aranguren auzunera. Han egoala andra bat umeari titia emoten eta mazkilegoan -esnea egosteko lehenagoko tresna- esnea egosten. Eta sartu zan Gizotso etxean, andeari titi biak moztu eta mazkilegoko esnea edan eta hona etorri zala atzera. Han harmolan, hatx handi baten, egoten zan dana bijiletan eta han atzean egiten ebala kaka esaten euskun. Eta kontetan euskun horreek kontuok... eta gu mutikotan... bildurra!".

Atxerdi eta Iturriza

Pabi Astondo mutikotan ahuntzakaz egoten zan lekutik bere etxera abiatu gara, orain. Bidean, Atxerdi baserri ondolik pasau eta baserri horretan egoala andrea umeari titia emoten Gizotso sartu zanean dino Pabi Astondoak.



Gizotso Aranguren auzuneko Atxerdi baserrira joan ei zan.

Zugaitik BEGITUten dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com
Lehendakari Agirre, 8 behea
48140 Igorre

INMOBILIARIA
Tfnoa: 94 631 80 04

ASESORIA
Gorbeialde
Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

BICIS BIZI
Arraialarrea
BICIS BIZI

Ibilbidea amaituta, Iturriza baserrira joan gara. Han, Pabi Astondoak herri kiroleetan irabazitako garaikurrak, txapelak eta kopak

arasa, kutxa eta apalak beteten dabez. Baita Irati alabeak irabazitakoak be.

Pabi Astondoa 30 urte zitua-



Atxelorriko ur-saltoa.



Laminategietako koba.

nean hasi zan sokatiran eta harezkerotik "harria altxatu izan ezik" danerik egin dau: trontzan, segan, fardoa, txingak, zakua, ingudea... Artzai txakurrakaz Bizkaiko txapela, Euskadikoa sokatiran bakarka...

Zanburu eta Lamindao
ingurua koba eta lezez
beteta dago

Orain buru-belarri dabil segan Europako txapelketea prestatzen -igaz Dresden (Alemania) txapel-duna izan zan 60 urtetik gorakoe-tan- eta alabeari laguntzen. "Iratik Euskadiko nesken sega txapelketea dauka garagarrian".

arratiako instalazioak s.l.
Berokuntza - Iturgintza - Gasa
Aireztatzeko sistemak
Aire zurgatze zentralizatua
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industrialdea
Pab. D7
Tel. Fax. 94 673 62 76
Tel. 619 736 516
48140 Igorre Bizkaia

Bizkaifisios SLk
bi zentro ditu
Fisioterapia Zentroa Igorre
Elexalde 4
Telefonoa 94 631 55 08

Andra Mari Klinika
Fisioterapia Zentroa
Pontzi Zabala 1. Galdakao
Tel/faxa 94 457 23 64

www.bizkaifisios.com

946.319.008
658.195.091

GALANTA
zure barruko arropa
M. JOSE
barrutik janzten zaitu

Hondartzarako bainujantziak, bikiniak...

Agirre Lehendakaria 23
48.140 Igorre
galanta@hotmail.es

Igorren jai-jai, dendatan danok alai

www.facebook.com/galantaigorre

ALKIZABAL
www.alkizabal.net
alkizabal@alkizabal.net
Zabalik 07:00 - 19:00

Eraikuntzarako makineriaren salmenta eta alokairua

BOLUNBURU POLIGONOA
Amorebieta-Lemoa bidea
Tel. 94 631 44 06. Faxe. 94 631 20 26
48330 Lemoa (Bizkaia)

KÄRCHER
Banatzaile ofiziala

Zuk behar duzuna daukagu, galdetu konpromiso gabe.
Garraio zerbitzua.

MENDIA

"Ahalegin guztiak penea merezidu izan dau"

Erredakzinoa

Horreek izan ziran Alex Txikonen berbak, maiatzaren 21ean, Lhotse-ko tontorra zapaldu eta 19 ordu beranduago bigarren kanpora deskansetara heldu zanean.

Hau lemoaztarraren hamargarren zortzimilakoa izan da. Hau egin ostean, Txikonek Dhaulagirin hil dan Juanjo Garraren erreskatean hartu eban parte, Ferran Latorre eta Jorge Egocheaga mekiuagaz batera.

Lhotseko tontorra zapaldueta "oso gogorra zala pentsetan neban baina pentsetan nebana baino askoz gogorragoa izan da. Bitan edo hirutan buelta emoteko

zorian egon naz. Akaso, altuerea igarri dot, denporea dalako ez nazala egon 8.000 m.tik gora eta ez dalako bardin 7.500 m.tara egon ala 8.300 m.tara. Gorputzak igarri egiten dau. Gainera hotz handia egiten eban, zati arriskutsuren bat ikusi dot, harriak jausten ziran, ia zati dana bakarrik egin dot... momentu gogorak egon dira baina esfortzuak merezidu izan dau" kontetan dau Alex Txikonek bere blogean. Espedizinoa luzea izan dala eta etxera bueltetako gogoa daukala be esaten dau lemoaztarrak.

Juanjo Garraren erreskatea

Espedizino gogor honen ostean, geratzen jakozan indarrak Juanjo



Alex Txikonek.

jo Garraren errekasterako behar izan zituan Txikonek. Juanjo Garra Dhaulagirin hil zan maiatzaren 27an, istripu bat izan eta 3 egun beranduago. Desnibelek jakitera emondakoaren arabera, denpora guzti honetan Kheshap Sherpa izan eban ondoan. Erreskatea martxan zan. Sherpa bik bizirik

topau eban Garra eta ura eta oxigenoa emon eutsien. Helikoptero batek eroan zituan sherpa bat eta medikua hirugarren kanpamentura eta Txikonek eta Latorre lehenengo kanpamentura, eta azkar igo ziran hirugarrenmendizaleak. Garra kanpamentu honetatik hiru bat ordura egoan Txikonen kalkuluen arabera. Dana dala, heldu ziranerako belu zan eta ezin izan eban Lleidakoaren bititza salbau.

Nuptse-ko erdiko tontorra

Helburu bi zituan espedizino honek, Lhotse (8.516 m.) eta Nuptse-ko (7.861 m.) tontorrak, hain zuzen be. Nuptsera maiatzaren 16an igon eban Txikonek, erdiko tontorra zapalduz, baina tontor nagusitik 100 metrotara geratu zan, Txikonek berak twitterren bidez jakitera emon ebanaren arabera, tontor bien arteko ertetik joateko baldintzak ezinezkoak egiten ebelako bigarren hau zapaltzea.

FUTBOLA

Futbol Kanpusa Igorren eta Udalekuak Lemoan

Irati Urien

CD Arratiak Futbol Kanpusa antolatuko du udarako, Igorrenko Urbietako futbol zelaian. Bost urtetik gorako neska-mutientzako izango dira eta hiru deialdi eukiko ditu; bagilaren 24tik 28ra, garagarriaren 1etik 5era eta garagarriaren 8tik 12ra. Goizeko 09:00etatik 14:00etara, hainbat izango dira burutuko diran ekintzak: futbola, multikirola, igeriketa, herri kirolak, txangoak, jokoak, erregalua, hamaiketakoak... Izena emoteko edo informazio gehiago gura izan ezkerre arratiakokanpusa@gmail.com helbidea edo 688 627 165 telefono zenbakia erabili daiteke.

MENDI BIZIKLETEA

Mendi Bizikleta Martxea Zeberion hilaren 9an

Erredakzinoa

Bagilaren 9rako, Zeberioxtrem izeneko II. Mendi Bizikleta Martxea antolatuko dabe Ermitabarrin. Urtekera goizeko bederatziretan izango da eta ibilbide bi egiteko aukera dago: ibilbide laburra 27,5 km. ditu eta 1.337 m.ko desnibela eta luzea 44 km. eta 2.317 m.ko desnibela. Izena <http://zeberioxtrem.wordpress.com/>-en emon behar da. Hilaren 7a baino lehen egiten dabenak, Garribikes-eko ekipamentu baten zozketan parte hartuko dabe. Aurreinskripzioa baieztatu eta darsalak batu, 07:45etik, 08:45era izango da.

Parte hartzeako gitxieneko eda-dea 16 urte dira eta parte hartzaile guztiak babesteko kaskoa

eroan behar dabe.

Ermitabarrin, Laureta, Sarasola, Kukutze, Argiña, Mandoia, Zubialde eta Elizondotik pasauko dira txirindulariak Ermitabarrin amaitu baino lehen.



BTT

Julen Zubero Euskadiko BTT txapeliduna

Erredakzinoa

Julen Zubero lemoaztarrak Euskadiko BTT Txapelketa irabazi eban maiatzaren 25ean Pasaian (Gipuzkoa). Lasterketa gogorra izan zan, "bide ikusgarri eta zati oso teknikoak" Ciclos Zuberoak azaldutakoaren arabera. Bigarren Patxi Ciak egin eban eta hirugarren Aitor Hernandez izan zan.

Sano denporaldi ona egiten dabil Lemoakoa. Maiatzean Titan Desert-eko probarik gogorrena irabazi eban, sailkapen orokorrean laugarren eginaz. Maiatzaren 12an, Mendi Bizikletako Bizkaiko Txapelketan hirugarren egin eban.

FUTBOLA

Arratiarrak garaile azken partiduan



Clara Luja Azpiri

Arratia futbol taldeak Trapagaran A taldearen kontra jokatutako azken partidua bost eta bat irabazi eban. Maiatzaren hamazortzian jokatu zan, arrastiko bostetan, Igorrenko Urbietako zelaian.

Atzenengo garaipen honek berrogeta hamabi puntu batu ditu eta Lurraldeko Lehentasunezko mailako sailkapenean bostgarren geratu da Arratia liga amaitutakoan.

Udalekuak Lemoan

Garagarriaren 8an hasi eta 12ra arte futbolari lotutako udalekuak antolatuko dira Lemoan. 7-12 urte bitarteko umeak apurta ahal izango dira. Egutero alkatuko dira, astelehenean barikura, 09:00etatik 14:00etara. Lemoako Harrobi Futbol Taldeak eta Jolastuz Jokatu alkatuek antolatuko ditue egonaldioak. Helburuen artean, zelan ez, umeen gozamenaren lortzea gura da. Prezioa 115 eurokoa da eta izena emoteko epea zabalik dago apirilaren 29tik. Izen-emote orriko datuak beteta, eta abonua-agiria jolastuz jokatutuekarta@gmail.com e-postara bidali behar dira. Plaza mugatuak dagoz.



indar
Instalazio elektrikoak

Bidosola Industrialdea, pab. E 3-4
48142 ARTEA - BIZKAIA
t. 94 655 47 19
indarsi@indarsi.es • www.indarsi.es

UMEAZ moda

sein
0-16

Agirre Lehendakaria, 27 • 48140 IGORRE
Tfnua: 94 631 92 96 • seinmoda@hotmail.com

AKETEGIA

GAV 15 LORA

IGORRE

AHOLKULARITZA:
LEGE-LAN ARLOAN

ZUZENBIDE

ZERGA ETA DERU KONTRATUEN
ONDARIN HUGAZTINEN
ASIGURATZEN

Balme Arana, 3. Floor, 94 673 71 41 - Fax: 94 673 71 41 - 48140 IGORRE

axular
kultur-erakunde

Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92
axularke@gmail.com

ekin s.l.
CONSTRUCCIONES

LAN PUBLIKOAK
INDUSKETAK
GARRAIOAK
UR SAREAK
SANEAMENTU SAREAK
BASERRI ETA BASOAK BIDEAK
PABELLOAK
URBANIZAZIOAK

Iturriotz barrena 8 • 48141 Dima (Bizkaia)
Tel.: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25
e-posta: obras@construccioneseekin.com

Pinturas Anatia

Javi Morato
Tel. 628 443 992

AIZKOREA

Atutxa Urrezko Aizkorako banakako txapeldunorde

Irati Urien

Aitzol Atutxak bigarren postua lortu eban Urrezko Mailako banakako Eusko Label Txapelketan. Joseba Otaegi, Jon Rekondo eta Floren Nazabal euki zituan aurkari Azpeitiako Izarraitz frontoian, hilaren 2an. Floren Nazabalek irabazi eban 25'41"ko denporeagaz. Etxarrikoaren ostetik, 28'46"gaz txapel-

dunorde gelditu zan Atutxa. Dimoztarrak bere twitter kontuan adierazo eban, "3. urtez jarraian Urrezko Aizkorako banakako 2. postua lortuta, zaila izaten da gora heltzea baina zailagoa mantentzea!". Orain, 2013ko Aizkolari Txapeldunen liga prestatuteko arnasa apur bat hartuko dabe aizkolariak. Liga horrek hil honen atzenean emongo ditu lehen aizkorakadak.

MARATOI TXIKIA

Marka guztiak apurtu zituan partaidetza aldetik Arratiako XXXIV. Maratoi Txikiak

Erredakzinoa

Inoz baino jente gehiagok hartu eban parte bagilaren 2an Arratia ikastolak eta Arratia Institutuak antolatuten daben Maratoi txikian. XXXIV. edizinoa izan zan eta ondo ezaguna da proba hau. Nagusien proban, Zeanuritik lauhun lasterketari baino gehiago urten ziran, orain arteko marka guztiak apurtuz. Maratoi honetan edade eta maila guztietako lasterketariak hartzean dabe parte: umeak eta edadeko jentea; atletismo klubetakoak eta eskolako umeak.

Helmugara ailegau zan lehenengo gizona Iñaki Garcia izan zan, 1971tik 1995era jaiotakoan edade tartekoa, eta lehenengo andrazkoa Mari Carmen Gartzia, 1900-1973 tartekoa. Nagusien kategorian, andrazkoen partaidetza txikiagoa danez, kategoria bat gitxiago dago, andrazko kategoria bi eta gizonezko hiru kategoria hain zuzen be.

Argazki batzuk www.begitu.org webgunean dagoz ikusgai.

Honek izan ziran kategoria bakotxean irabazleak.

Zeanuri-Igorre

1900etik 1963ra jaiotakoak

Gizonak: Jose Manuel Arce.

1900etik 1973ra

Andrak: Mari Carmen Gartzia.

1964tik 1973ra

Gizonak: David Miguel.

1974tik 1995ra

Gizonak: Iñaki Garcia.

Andrak: Onditz Iturbe.

Artea-Igorre

1996tik 1998ra jaiotakoak

Mutilak: Erik Esparza.

Neskek: Olatz Arce.

1999tik 2000ra jaiotakoak

Mutilak: Jokin Totorika.

Neskek: Maria Diaz.

Dima-Igorre

2001 eta 2002an jaiotakoak

Mutilak: Markel Basilio.

Neskek: Elene Astondoa.

2003 eta 2004 urtean jaiotakoak

Mutilak: Markel Corchado.

Neskek: Irati Artaroz.

Igorreko zirkuitua

2005 eta 2006 urtean jaiotakoak

Mutilak: Anton Iza.

Neskek: Iزارo Ozerin.

ARETO FUTBOLA

Zeanuriko ume benjaminak areto futboleko Bizkaiko Txapeldunak

Erredakzinoa

Partidu bat bera be galdu ez daben denporaldia egin eta gero, talde bakotzeko lehen sailkatuen artean jokaturako finala irabazi eban apirlean Durangon jokaturako torneoan. Landako (Durango), Sta. Rita (Durango), Nevers (Durango), Eretza Berri (Sodupe) eta Sestao River izan ziran aurkariak. Finala Sestao River-en kontra jokatu eban 4-2 irabaziz, "Zeanuriko taldeak erreakzionetako



Txapeldunak, gurasoak eta Aitziber Egiarte entrenatzailea.

gaitasuna eta taldean jokatzeko abilezia erakutsi eban partidu gaxai eta kontrako emoitzei buelta emonaz" dino guraso batek.

"Zorionak eta eskerrak emon gura deusaguz gurasook jokalariai: Mikel Alonso, Eneko Artaraz, Aritz Artetxe, Eukeni Egileor, Maren Emaldi, Ene-

ko Erdozia, Xabier Etxebarria, Jokin Goti, Iker Olibares, Jokin Olibares, Xabier Pereda eta Mikel Santiagori, entrenatzaileak diran Aitziber Egiarte eta Jose Luis Artetxeri (Txelis), delegadu, epaile eta gurasoai urte osoan erakutsitako kiroltasun, inplikazio eta prestutasunagaitik" dino.

IGERIKETEA

Igorreko Igeriketa Taldea Bizkaiko Txapelketan

Erredakzinoa

Eskola mailako Bizkaiko Igeriketa Txapelketan hartu dau parte aurten Igorreko Igeriketa Taldeak. Zortzi eta hamaika urte bitarteko umeak izan dira eta lortutako emoitzeak pozik agertu da Ane Intxausti Iturbe entrenatzailea. Posturik onena Jone Muñecas dimoztarraren bosgarren postua izan da. "Oso ondo dago. Kontuan izan behar da, alde batetik lehenengo urtea izan dala Igorreko taldekoentzat eta, bestetik entrenamentuak 20 m.ko igerilekuan egiten dirala eta lehiaketeta 25 m.koan" dino entrenatzaileak.



Igorreko Igeriketa Taldea.

ALBERTO. | Proiektuak & Altezariak

OUT LET GUNEA.
Altezi modernuak eta gaur egunekoak.

bonodekor
20%
deskontua descuento

SUKALDEAK.
Modernuak eta gaur egunekoak.

WEB BERRIA.
www.mueblesalberto.com

ARTE GALERIA.
Arte personalizatua

ERAI KUNTZA KUDEAKETA.
Erreklamatu eta proiektuak

WWW.MUEBLESALBERTO.COM

Gernika kalea 3, 48960, Galdakao (Bizkaia)
944 56 79 79
info@mueblesalberto.com

LITERATUREA

Maialen Madariaga Arteakoak irabazi dau Urruzuno saria bigarrenez

Erredakzioa

Arratia Institutuko Maialen Madariaga ikasleak urte bitan jarraian egin dau lanik onena, epaimahaiaren eretziz, "Urruzunotarrak gehituz" Eusko Jaurlaritzako ekimenean. "Oroitzapenaren azken geltokia" dauka izenburuzat arteaztarraren ipuinak eta igazko moduan, egileak prestatze egonaldi batzuetan hartuko dau parte,

beste kategorietako lanik onenen egileakaz batera. Igaz, "Negar artean, baina bai" ipuinagaz be izan eban Madariagak bikaintasun aitamena Eusko Jaurlaritzak Bigarren Hezkuntzako ikasleai zuzendutako ekimen honetan.

Bikaintasun aitamena

Igaz, krisi ekonomikoaren eraginez, Urruzuno lehiaketan aldaketa batzuk egon ziran. Nabarmenak Urruzuno lehiaketa izatetik Urruzunotarrak gehitzen ekimen izatera pasau dala. Lehiaketea ez denez, irabazle izatetik bikaintasun aitamena jasotzera pasau dira lan onenen egileak. Eta saria biaje bat izan beharrean, lau eguneko prestaketa-egonaldian parte hartzeako aukerea izaten dabe igaztik idazle gazteak. Egonaldi horretan, literatura-tailerraz eta idazteagaz zerikusia daukien hainbat ekintza egoten dira. Pozik egon zan



Maialen Madariaga.

Maialen Madariaga igaz egonaldi horretan. "Sano gustora egon nintzan. Azken finean han batzean gara gustu eta zaletasun bardinak daukagunok eta interesatea da idazle batetik ikastea. Igaz Yolanda

Arrieta egon zan eskolak emoten" dino.

Sagastiberri sailean argitaratuko da Madariagaren ipuina.

Arratia Institutu "urruzunotarra"

Azkenengo lau urteotan, Arratia Institutuko ikasleren batek lortu dau sari edo bikaintasun aitamen hau: 2013 eta 2012an Maialen Madariagak, 2011n Elena Bermudezek eta 2010ean Nastia Atutxak. Aurretik be, Urruzuno saria Institutu honetako ikasleak ziran Igor Estankonak, Iker Yurrebasok Gaizka Amondarainek edo Nagore Amondarainek irabazi eben berbarako. Gainera, Institutuak berak be aitamen bi daukaz. "Institutuko lanaren alde bi errekonoziduten ditu sari honek: euskerearen ingurukoa eta literatura ingurukoa" dino Juan Rekaldek institutuko euskera irakasleak.

IBILALDIA

Dimako hamasei ermitatik pasauko dira ibiltariak



Igazko ibilaldiko argazkia.

Erredakzioa

Hilaren 8an, Dimako Udalak antolatutako Ermiten Ibilaldian parte hartzean daben ibiltariak hamasei ermitatik pasauko dira. Sasoi be-tean egon behar da ibilbide hau egiteko, ibilbide bakarra dago eta, 31 km.koa.

Ibiltariak goizeko 07:00etan batuko dira Dimako plazan eta ibilbidean topauko diran ermitak honeexek dira: San Roke, Olazabalena; San Migel Txiki; Madalena, Lamindaon; San Inazio; San Blas; San Fresku, Indusin; San Lontzo, Baltzolan; Santa Apolonia, Bargondian; Santa Mañe; San Antolin, Oban; San Bizente, Artaunen; Santa Ageda, Bikarregin; San Millan, Biteriñon; Santiago; San Balendin eta Piedadean amaituko da ibilbidea.

IKASTAROAK

UEUn matrikuletako epea zabalik

Erredakzioa

Aurtengo leloa 40+1 da, 41. edizioa da eta 41 ikastaro eskeintzen ditu, garagarilaren 1etik 24ra arte Eibar, Baiona eta Iruñean Udaiko Euskal Unibertsitateak. Ikastarook, Artea eta Musika, Giza Zientziak, Gizarte Zientziak, Ingeniaritza eta Teknologia, Osasun Zientziak eta Zientziak arlokoak dira. Matrikula epea zabalik da.

Aurten, Bizkaiko unibersidade ikasle eta unibersidade ikasle ohilangabetuak doban euki ahal dabe bertako matrikulea. Joan-etorrietarako eta ostaturako be dirulaguntzak emoten ditu Bizkaiko Foru Aldun-

diak.

Ni ere UEU, Gurea, euskalduna

Igaz, Jaurlaritzak 1998 urtetik UEUri emoten eutsan dirulaguntzea kendu eutsan, eta horrek erakundea egoera larrian ipini dau. Horregaitik "Ni ere, UEU" kanpaina abian ipini dabe, UEU ezagutera emon eta proiektu-gazko atxikimenduak jasoteko helburuagaz. "Kanpaina honetan, papel garrantzitsua jokatu dabe sare sozialak eta hainbat aurpegi ezagun ikusi ahal doguz bertan: Pedro Miguel Etxenike, Juan Mari Arzak, Ilaski Serrano, Kirmen Uribe eta Gorka Otxoa, beste batzuen artean".

UDAKO IKASTAROAK 2013

www.ueu.org

EIBAR uztaillaren 1etik 5era eta 15etik 19ra
BAIONA uztaillaren 10etik 12ra
IRUÑEA uztaillaren 22tik 24ra

40 + 1 = 41

BIXER TABERNA

Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARDO

ELEKTROARGI ELEKTRIZITATERA

Instalazio elektrikoak • Aberiak
Telekomunikazioak
Material elektrikoak

Juan de Ajuriagerra 1 Behea 48330 Lemoa
Tfnoa-Faxa 94 6312576 Mug. 647405115

Dia %

PEDRO AUTOSERBITZU

Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

Los Chopos

neurritza egindako armairuak

Avda. Los Chopos, 35 (Nizaga) Tel.: 94 630 40 94

Esposizinoa eta fabrika Lemoan

Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44
www.armariosloschopos.com

ZEKUTZE
JATETXEA

Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel.: 94 631 52 83
zekutzejatetxea@hotmail.com

www.begitu.org

*** KIRRU * ILEAPANDEGIA SOLARIUM**

Roberto eta Rosana

Sabino Arana, 38 bajo - 48140 IGORRE (Bizkaia)
• 94 631 92 00

Jose Luis Corbacho

pintura lanak

Sabino Arana, 3. 3a ☎: 94-673-70-87
Igorre 48140 Bizkaia ☎: 609-79-40-54

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea

Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

Igorren ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana

Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Emilio Goitia banatzaile ofiziala

San Miguel

Ardoak Edariak

94 673 64 02 Industrialea E-3 Pabeloia (Igorre)

GARANTXE Autoeskola

TEORIA EUSKARAZ
ZEIN ERDARAZ

Balmenak: A1, A, B1, B

Lehendakari Agirre 31
Igorre | 94 673 71 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@euskalnet.net

ARRATIA AUTOESKOLA
karneta eskolaraz zein erdaraz

Garbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)
Telefonoa 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 83
e-posta: unda.A@euskalnet.net

LEHIAKETE

Osakidetzaren marrazki lehiaketea

Erredakzioa

Jon Orbe Arratia Institutukoak, "Kerik gabeko ikasgela" marrazki lehiaketearen Toki Mailako saria irabazi dau. Programa europear horren helburua tabakismoaren prebentzioa da eta DBHko 1. eta 2. mailako dago zuzenduta. Osakidetzak eta Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailak antolatu eta Mankomunidadeko Prebentzio Zerbitzuak koordinatu dau.

Toki Mailako fase honetan, 179

ikaslek hartu dabe parte. Jon Orberen marrazkian ziega baten giltzaparatutako mutil gazte bat ikusten da. Ziegako barrak zigarroak dira, eta mutilak desesperazinoz heldzean deutse barra horreei.

LEHIAKETE

Lemoako II. Narrazino Lehiaketea

Erredakzioa

"Neuk irabazi nuen partida"

izeneko ipuinagaz irabazi eban Karmele Arrieta Zuazo galdakoz-tarrak Lemoako II. Narrazino Lehiaketea. Beste hiru sariak Lemoan geratu ziran. Maikel Gomez Sanchezek "Hitzak oroitzu" lanagaz lortu eban bigarren saria eta Jokin Uriarte Alkorkak "Ezkutuan" ipuinagaz, hirugarrena. Lemoako 1. saria Maria Rodriguez Garciak irabazi eban izenburubako lan batez.

Lehiaketan saritutako lanak Lemoako Udalaren webgunean argitaratu dira.

Ipuinak irakurgai

Lemoako Haur eta Gazteen XII. Ipuin Lehiaketan saritutako ipuinen liburua be webgunean argitaratuta dago.

BERBALDIA

Gerrako biktimai izena ipini eutseen Lemoan

Erredakzioa

Lemoatxeko batailaren 76. urteurrenaren inguruan, Lemoatx 37 Memoria Historikoaren Batzorde Herrikoiak Iñaki Egañaren "Gerra zibila Arratian eta ondorengo ikerketak" izeneko berbaldia ekarri eban maiatzaren 29an. Iñaki Egaña historialari eta Euskal Memoria Fundazioaren lehendakariak 20 urte baino gehiago daroa gerra eta frankismoaren memoria historikoa errekuperetako lanetan eta gerra kontatez gainera, biktimen hainbat datu emon zituan, tartean Arratiako biktimenak be. Aretoa bete-beteta egon zan, gerrea lemoatzen memoria kolektiboan ondino oso presente dagoan gaia dala erakutsiz.

Egañaren bidez jakin genduan, esaterako, Arantzazun, Zeanurin eta Zeberion ez ebela inor afusilau. Lemoan persona bi afusilau zituela, Antonio Zarraga eta Joseba Tellitu; Diman beste bi; Areatzan bi eta Igorren bat.

Lemoatxeko burrukea maiatzaren 28an hasi eta bagilaren 5ean amaitu zan. Bagilaren 5ean batailloi errepublikarrak berreskuratu eben Lemoatx, eta egun hareetan izan ziran hegazkin alemaniarrek egindako bonbardaketak. Baja agiri ofizialen arabera, burruka honeetan, bigarren brigadan 125 hildako eta zauritu egon ziran, maiatzean; bagilaren 3an, errepublikarrak Lemoatx berreskuratu eben egunean, 253; eta bagilaren 5ean, 145.

Lemoako biktimak

Gerra honetako biktima izan ziran lemoatzen izenak be emon zituan Egañak. Holan, maiatzaren 16ko

bonbardaketan Lemoan 3 hildako egon zirala esan eban: Franziska Bizkarguenaga, Domingo Etxebarria eta Jesus Zulueta, hain zuzen be.

Gerra amaitu eta galduta kartzelan luzaro egon ziranen artean, 1938 eta 1958 artean, Alcalá de Henaresko artxiboan dagozan fitxak arakatuta, luzaro preso egondakoak, "13.000 inguru dira Euskal Herrikoak, horetatik 27 Lemoakoak". Lemoako presoen zerrendea orden alfabetikoz dago eta lehenengo Anizeto Abasolo Mendiola eta azkena Antonio Zubizarreta Arregi dira.

Gurs-eko konzentrazio eremuan egondako Lemoako lau bizilagunen izenak be emon zituan historialariak: Basilio Abasolo, Pedro Aretxabala, Hilario Gurtubai eta Mariano Zalduegi.

Azterrirra joandako umeai jagokiegan Lemoatik 7 ume urten ebela esan eban: hiru Belgikara joan ziran, Maria Luisa eta Roberto Txarterina neba-arrebak, eta Migel Canarias; eta lau Frantziara: Regina Arana, Rikardo eta Esteban Garcia Alvarez anaiak, eta Jose Luis Legina.

Eta Salamancako artxiboan Lemoako EAJ-PNVko afiliazio osoa dagoala eta horren kopia bat Bergarako Iragi artxiboan topau daitekeela be emon eban jakitera Memoria Fundazioakoak.

Lemoatxeko kurutzea

1938ko bagilan inaugurau ebela Lemoatxeko kurutzea esan eban Egañak. "Orain dagoana laugarren kurutzea da eta 1958an inaugurau zan. Lehenagoko biak bonbak eta bestea inizituak suntsitu zituen" jakinarazo eban Lemoatx 37 batzordeko kide dan Mikel Diegok.

MUSIKEA

Musikearen Astea Areatzan

Erredakzioa

Hilaren 17tik 21era Areatzan Musikearen Astea antolatu dabe, perkusinoaren inguruko, batez be. Aste horretarako Areatzako Kirol eta Kultur Batzordeak bost kontzertu antolatu ditu, horreen artean kontzertu pedagogiko bi. Azenengo egunean, Udalak antolatuta Arratiako Musika Eskolea ibiliko da txokoz txokoz, emonaldiak eskeintzen.

"Aste musikalaren idea, Europako Musikearen Eguna oinarritzat hartuz, musikea, adin eta esparru guztietara helduteko atakia da. Kontzertu guztiak perkusinoa eukiko dabe oinarritzat" azaldu deutso BEGURI Asier Garcia AKKBkoak.

Perkusino biatze izango da lehenengo ekitaldia. Bagilaren 17an, goizean, Arantza Etxebarria idatzitako istorio baten oinarritutako ipuina erabiliz, sentimenduak isladatu eta biatze bultzatuten dauan ipuin musikatua ikusteko aukerea egongo da, Asier Garcia eta bere perkusino instrumentuen laguntzeagaz.

Perkusino eta biola kontzertuak izango dira Mus2ka taldearen eskutik iluntzeko zortziretan hurrengo egunean, 18an. "Formato txikiko kontzertua" eskeintzeko dabe "giro goxo eta intimo bat sortzeako amoz" Mus2kakoen esanetan.

Eguazten goizean, "Maddi eta Txistua" liburuaren aurkezpen musikatua ikusteko aukerea

egongo da. Idoia Kareagaren liburua atakia moduan hartuta txistuaren inguruko kontzertu pedagogikoa eskeintzeko dabe Areatzan.

Arrastiko zortziretan, barriz, "urtean zehar jorratutako zineforum zikloari amaiera emoteko, Buster 4tet jazz laukoteak Buster Keatonen *The cameraman* pelikulari musika zuzenean ipiniko deutso, beren beregi Areatzarako konposaturiko musikea. Honegaz lehen pelikular zelan ikusi eta entzuten ziran irudikatu gura dogu" Garciak azalduetakoaren arabera. Eta arrastiko zortziretan Bilboko Orkestra Sinfonikoko perkusionistak etorriko dira kontzertua emotera. Udal aretoan izango da kontzertua.

Musikearen Asteari amaiera emoteko, Arratiako Musika Eskoleak, herriko txoko desbardinetan emonaldiak eskeintzeko dituzte 19:00etatik aurrera.

DUNBA

"Txirringa eskolan" Lemoako ikasleak



Umea bizikletan.

Lemoako JB Eguzkitza Meabe LHlko 6. mailako ikasleak

"Txirringa eskolan" eskolaz eskola doan ekintza eta kanpaina da. Bere helburua da ikasleak bizikletaz ibiltzen animetea, arauak erakustea eta bizikletearen onurak azaltzea.

Udalaren laguntzeari esker, Lemoako JB Eguzkitza Meabe LHlko 5. eta 6. mailakoak probau egin dogu programatu hau.

Ekintzak ikasturtean zehar lau saiotan bananduta dagoz:

- Lehenengo saioan bizikleta desbardinak, euren atalak eta konponketea erakutsi euskuezan.

Baita gure segurtasunerako derrigorrez erabili behar doguzan materialak eta ohiturak birgogoratu genduzan. Ondoren zirkuitu baten saio praktikoa bat egiteko

aukerea izan genduan, jarritako oztopoak gaindituz trebetasunak hobetzeko bizikletearen erabileran.

- Bigarren saiorako Julen Zubero ziklo krosetako txirringularia, Asier Barrenetxea mendi bizikletako txirringularia eta Unai Cobo txirringularitzako epailea etorri ziran, eta euren arloari buruz egindako itaunak erantzun zituen.

- Hirugarren saioaren hasieran berbalditxo bat izan genduan zirkulazio arauak eta arriskuak errepasetako, ostean herri baten topau daitekeuzan elementuak osotutako zirkuitu baten, praktikan ipini genduzan entzundakoak.

- Laugarren saioa laster egingo dogu eta bertan herritik ibilaldi bat egitera joango gara Txirringa eskolakoak lagunduta. Tropelean



zelan joan behar dan, segurtasun arauak errepidean zelan apliketan diran ipiniko dogu praktikan eta lagunakaz buelta bat emonez ondo pasetako aukerea izango dogu.

Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleak ondo pasau dogu ekintza honetan eta espero dogu beste ikastetxeetan be probetako aukerea izatea.

AGENDEA

BAGILAK BEDIA

17:00etatik 20:00etara, hilaren 14ra arte, sanjuanetan txosnan lagunduteko eta play-backean parte hartzeako izen emotea. Liburutegian.

IGORRE

Jubiladuen alkarteak antolatuta bajea Salamanca eta ingurueta. Natura eta lasaitasuna. Bagilaren 21etik 26ra. 260 euro personako.

Endredetan 2013. Udako ludoteka bagilaren 24tik garagarriaren 26ra eta Udaleku irekiak garagarriaren 15etik 26ra. Izena Kultur Etxeko harreraren emon behar da bagilaren 14ra arte. Zaztaparrak antolatuta.

LEMOA

16:30etik, 19:30era, hilaren 14ra arte, Udaleku irekietan izena emoteko epea zabalik ludotekan. 5 eta 13 urte arteko umei zuzenduta. Udalekuak bagilaren 24tik garagarriaren 5era.

BAGILAK 5**LEMOA**

Ingurugiroaren Nazinoarteko Eguna dala eta tailer berezia ludotekan.

BAGILAK 7**DIMA**

19:30ean, "Diman etxean gura doguz" Herrirak antolatutako errepresaliaduen aldeko konzentrazinoa herriko plazan.

IGORRE

Igorreko jaiak. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

BAGILAK 8**AREATZA**

22:30ean, Edu Manazas and Whiskey tren The Quiet Corner-en.

23:00etan Jabier Mañon Bixer tabernan.

DIMA

07:00etan Ermiten Ibilaldia.

LEMOA

20:00etan, Udabarriko kontzertuak.

Mañariako Kirikiño Abesbatza, Otxandioko Ohiandi Abesbatza eta Lemoako Abesbatzen Elkartea. Lemoako Andra Mari eleizan.

BAGILAK 9**BEDIA**

Ganguren antolatuta Udalaren laguntzeagaz, urtekera Añana-Gatzaga. Somo (930 m.).

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, goizeko urtekera Arratiatik.

ZEBERIO

09:00etan, Zeberioxtrem II. Mendi Bizikleta Martxea.

BAGILAK 10**LEMOA**

11:00etatik 14:00etara, jubiladuen bajearako izena emoteko epea zabalik. Udaletxean.

BAGILAK 11**LEMOA**

Hilaren 20ra arte, Informatika eta Mekanografia ikastaroetarako izena emoteko epea zabalik. Liburutegiko informatika gelan. Ikastaroa 2013ko urri lehenengotik 2014ko garagarriera izango da.

BAGILAK 13**ZEBERIO**

Ermitabarriko jaiak. Ikusi egitaraua 6. orrialdean.

BAGILAK 14**AREATZA**

18:00etan, Txakolin kata, eskolako egurrezko jantokian.

22:30ean kontzertua Bixer tabernan.

LEMOA

20:00etan, Lemoako Korak antolatuta, Kantu-Pote Arrabitik.

BAGILAK 15**AREATZA**

Lamino Mendi Taldeak antolatuta, astegoen pasa Pirinioetara. Zapauan rafting

(aukerakoa) edo ibilbide laburra. Domekan Mallos de Riglosetik ibilbidea.

11:00etan, Antxoak oliotan tailerra, eskolako egurrezko jantokian.

BEDIA

Elexalde Bediako Jubiladuen Alkarteak antolatuta, urtekera Santoñara.

DIMA

06:00etan, Urkiolako errogatibara oinez joateko urtekera plazatik.

IGORRE

09:00etatik 20:00etara, II. Mile Baietz.

Euskerearen aldeko eguna.

ZEANURI

08:00etan, Urkiolako errogatibara oinez joateko urtekera plazatik.

BAGILAK 16**ARTEA**

Martxa zikloturistea.

BAGILAK 17**ARRATIA**

Graffiti eta ikus-entzunezkoen ikastaroetan

izena emoteko azken eguna. Ikastaroak garagarriaren izango dira doban. Mankomunidadeak antolatuta.

**AREATZA**

15:30ean, Perkusino bidaia Udal Aretoan. AKKBk antolatuta.

BEDIA

17:00etan, Txiki Txoko batzarra; 18:00etan, Udalekuak batzarra; 19:00etan, Uda Gaztea batzarra. Liburutegian.

BAGILAK 18**AREATZA**

20:00etan Mus2ka perkusino eta biola bikotearen kontzertua.

**EH Sukarra Igorreko jaietan**

EH Sukarra talde mitikoa Igorren izango da bagilaren 15ean gaua berotzen euren musika gogorraz. Bide luzea egin dabe eibartarrak 1990ko garagarriaren Soralezuko gaztetxean lehenengo kontzertua emon ebenetik gaur arte, eta zuzenekoak emoteaz gainera, zortzi disko kaleratu ditue: *EH Sukarra* (Esan Ozenki, 1992); *Irtenbide Bakarra* (Esan Ozenki, 1993); *Garaien Laberintoan* (Esan Ozenki, 1994); *Ura Sutan* (Esan Ozenki, 1996); *Sua Urtzean* (Esan Ozenki, 1999); *Galtzailearen Egunka* (Metak, 2002); *Zuzenean* (Barne Records, 2008) eta *Uhinak* (Oihuka, 2013).

IRAGARKI LABURRAK

SALDU**SALGAI**

Garaje partzela salgai Lemoa erdigunean. 660 549 695 Bego.

JOSTEKO MAKINEA SALGAI

Alfa 1203 modeloa. Oso ondo zainduta, gitxitan erabilia. 100€. Telefonoa: 661 273 192 (Laxia).

SALGAI

Haretezeko arasa ederra salgai. 139zm zabal, 50 sakon, 193 altuera. Ikusgai dago Elexalde 10ean, Igorren. 800 €. 615 731 182.

AUTOA SALGAI

Fiat Punto 1.2 Dynamic 5 ateduna. 8 urte ditu. ITVa 2014ko bagilera arte pasautu, 672 762 066 (Gaizka).

AUTOA SALGAI

Toyota Landcruiser-a saltzean dot. Interesdunak 615 728 940 zenbakira deitu (Pili).

ETXEA SALGAI

Babes Ofizialeko pisua salgai Areatzan. Aukera ezin hobea Arratian biziteko. 3 logela, bainu bi, sukalde ipinita, saloia, garagea eta trastelekua. Nerea 674 798 984.

DANERIK**ETXEA ALOKATZEN DOGU**

Alokairuan dagoan pisu baten bila gabizan neska arratir bi gara. Alaitz eta Maider 652 722 698.

BIZIKLETEA GURA DOT

Errepidean ibilteko bizikletea gura dot. Zaharra eta merkea bada, barria eta karua baino hobeto. Idatzi: sautuolabarri@gmail.com helbidera.

GARAJEA ALOKAIRUAN

Zeanuriko plaza-plazan dagoan garajea emongo neuke alokairuan. Interesdunak 94 631 70 46 telefonora deitu (iluntzetan).

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa**Zenbaki honetako saridunak:**

1 Axpe Goikoa Jatetxeak emondako txakolin kajatxoak (3 botila).

Gontzal Eguskiza (Areatza)



2 BEGITUREN kamiseta bana.

Marina Urigoitia (Artea)
Inma Sagarna (Zeanuri)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 11 urte eta ehundaka lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU

	1	2	3	4	5	6	7
1							
2							
3							
4							
5							
6							
7							
8							
9							

EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Uleordea. 2.- Etxe-aurre. Bokala. 3.- Konsonante bat. Andrazkoai deitzeako hotsa. Platinoa. 4.- Einsteinioa. Aurreko urtean. 5.- Harana. 6.- Emea ez dana. Ezetza. 7.- Tximiniatik urteten dau. Niobioa. Konsonante bat. 8.- Bokala. Adimena. 9.- Hegoamerikako estadia.

GOITIK BEHERA

1.- Ezin hobe da danaz esaten da. 2.- Errepetiduta, kontuz. Arrainak harrapetako tresna. Boroa. 3.- Behar. Iridioa. (Atz.) Nora atzizkia. 4.- Ureperra. 5.- Zerki atzizkia. Galioa. Errepetidu egiten dala adierazoteko. 6.- Bokala. Izaera bereko bi aleren multzo. Birritan, lora. 7.- Atzamarren puntan dago.

9	U	L	E	O	R	D	E	A	
8	K	O	N	S	O	N	A	N	T
7	Z	E	T	E	T	J	A	Z	D
6	L	E	N	E	Z	U	X	G	U
5	A	B	U	S	T	I	N	I	G
4	P	L	A	P	A	P	A	N	O
3	I	R	T	A	J	U	G	E	U
2	P	O	T	A	L	P	O	X	I
1	U	Z	A	X	O	U	T	O	T

Topau umeakaz berbetan gabilzanean darabilguzan zazpi berba.

A	Z	T	O	K	O	L	I	B	A
R	O	I	X	A	N	U	K	E	Z
K	A	D	A	I	L	I	M	A	U
O	Z	E	T	E	T	J	A	Z	D
L	E	N	E	Z	U	X	G	U	E
A	B	U	S	T	I	N	I	G	O
P	L	A	P	A	P	A	N	O	R
I	R	T	A	J	U	G	E	U	K
P	O	T	A	L	P	O	X	I	N
U	Z	A	X	O	U	T	O	T	O
X	E	L	T	A	N	G	R	A	M
I	T	U	A	A	E	R	I	H	A
B	A	R	X	U	M	A	P	I	N
O	S	T	T	I	U	K	E	K	U
L	A	I	A	D	I	A	R	A	Z

AKI MI KO

Zorrozki lo



HERRIKO BENTÄ
HOSTAL
HERRIKO PLAZA,
48142 ARTEA (Bizkaia)
Tel. 94 631 72 56

expert **ARRATIA**
E-posta: expertarratia@cordevi.com
Leh. Agirre, 16 Tel. 94 673 60 55
48140 IGORRE Fax 94 631 52 89

bbk

Gure Ikastetxeak
Arratiako Herri Ikastetxeak 2 urteik 18ra. Euskalduna, kaltetuzkoa, herrikoa

- Arratia BHI**
Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igorre
- Ikastola Arratia HI**
Tel.: 94 673 90 65 Faxa: 94 673 90 65 Artea
- Zubialde HI**
Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio
- I. Zubizarreta HI**
Tel.: 94 673 60 22 Faxa: 94 673 60 22 Igorre
- Areatzako Herri Eskola**
Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza
- Zeanuri HI**
Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri
- J.B. Eguskiza Meabe HI**
Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa
- Ugarana HI**
Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Hour hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Baxilegoak, Hezkuntza zikloak

FISIOTERAPIA
Balneario Areatza
Tania Fernandez Santiago
www.gruposasobide.com COL. 1718 Tel.: 94 657 54 50

Kendall Languages
- A, B eta C perfil linguistikoen lorpena Trinity College London eta Oxford Universityren zentru ofiziala, azterketak zentruan bertan eginaz
- Cambridge, EOI, First Certificate... azterketetarako prestaketea
Elexalde 4 behe · 48.140 Igorre (Bizkaia) · 94 657 73 48 · www.kendall-languages.com

ISABEL ALIAGA ETA ROBERTO SALAZAR

**"Biajea etenbako
erronka izan zan"**

Isabel Aliaga eta Roberto Salazar Igorren bizi dira eta biajariak dira. Igaz, munduari bira emon eutsien Uxue eta Alizia euren bi alabakaz. Andra-gizonakaz egon da BEGITU, biajearen gorabeherak ezetuteko.



Clara Luja Azpiri

**Zergaitik ebatzi zenduen h-
lango biajea egitea?**

Roberto Salazar eta Isabel Aliaga: Biaje asko egin doguz biok eta biaje handi bat egin gura genduan familian, laurok. Hori da beharbada biajearen bereziena: umeakaz egitea. Gure alaba nagusiak 12 urte ditu orain baina hamaika zituan biajean, eta hamabi urte baino gitxiagoko umeak deskontu asko ditue eta asko aurreztu genduan hegazkintan eta abar. Biaje polita izan zan, oso esperientzia ona.

Ze lekutara joan zinien?

R.S., I.A.: Lehenengo Bilbotik Londonera joan ginan, urtailerako erdikaldean edo. Handik Ciudad del Cabo, Hegoafrikara joan ginan eta han denporatxo bat egon ginan. Hortik Bangkok-era. Bangkok gure Asiako "base" lez hartu genduan. Itzuli bat egin genduan Asiatik: Thailandako ugarteak ikusi genduzan, gero Kanbodiara joan ginan eta Angkor tenploak ikusi genduzan, gero Laos-era joan ginan, Vietnam-era, Txinako hegoaldera... Orduan Tibetera joateko aukerea izan genduan eta hara be joan ginan. Nepalen be egon ginan eta orain dala gitxi turistentzat zabaldu dan Bhutan erreinura be bai. Gero Indian

egon ginan egun gitxi batzuk, eta ondoren Birmania ikusi genduan. Bangkok-era itzuli eta handik Australiara joan ginan. Australia ikusi ostean Pazifikora abiatu ginan eta bertan leku asko ikusi genduzan: Fiji irlak, Kiribati, Cook irlak, Haiti... Bertatik AEBra joan ginan eta han uri batzuk ikusi genduzan: Los Angeles, Boston, New York... baita parke naturalak be: Yosemite parkea, Coloradoko arroila eta abar. Bertatik Londonera barrero eta abenduaren baterako etxera itzuli ginan, beharrera bueltetako.

Zelan antolatatu zenduen dana?

R.S., I.A.: Gauza batzuk hemendik eroan genduzan prestatuta, baina batez be han bilatzen genduzan. Jateko eta lo egiteko lekuak bertan bilatzen genduzan, eta herrialde bakotxean janari eta moneta desbardinetera ohitu behar izaten ginan. Etenbako erronka izan da biajea. Ez dira oporrak izan, nahiz eta batzuetan deskantsau dogun leku batzuetan.

Hizkuntzakaz arazorik?

R.S., I.A.: Ez, ingelesagaz ondo konpondu gara leku gehienetan. Vietnam-en eta Hegoafrikan adibidez, ez genduan arazorik izan. Txinara pasau ginanean gauzak zaildu ziran, jente gehienak ez ebalako ingelesez berba egi-

ten eta gatxagoa zalako gauzak topetea. Batzuetan gura genduan janariari argazkia atera behar izaten geuntsan!

Gustuko izan dozuen leku bereziren bat?

R.S., I.A.: Leku guztiak emozionalak gaitue, desbardinak izan diralako. Baina adibidez, Hegoafrikan safari bat egin genduan alaba nagusiaren urtebetetzerako eta oso ondo egon zan. Animalia asko ikusi genduzan. Nepal be polita da eta han parke natural baten egon ginan, elefanteakaz eta. Gainera, oinez egin ahal zan, kotxe barik.

Zer izan zan gatxena?

R.S., I.A.: Baimenak eta dokumentazio guztia lortzea gatxan. Tibet-en sartzeako, adibidez, zazpi baimen lortu behar izan genduzan eta baimenak erakutsi mobiduten ginan bakotxean. Umeen eskoleagaz jarraituteak be esfortzu bat behar izan eban. Liburuak eroan genduzan eta ordutegi bat ipini genduan baina batzuetan gatxa zan munduko puntan egonda ikasten jartzea umeak. Konstantzia behar zan.

Eta hainbeste mobidutea leku batetik bestera, nekagarria izan daiteke. Batzuetan gelditu egin behar da.

Dana espero zenduen moduan urten zan?

R.S., I.A.: Gauza batzuk gehitu genduzan haurri ilusino handia egiten eutseelako. Indian gogozanean, adibidez, Taj Mahal-a ikustera joan ginan alaba nagusiak hara joan gura ebalako. Tibet eta Bhutaneko parteak be ez egozan planifikauta baina aukerea agertu zan eta hartu egin genduan.

Zer da garrantzitsuen hain urrun zagozanean?

R.S., I.A.: Komunikauta egoteko ordenagailu bat izatea ezinbestekoa da. Leku askotan ez dago internet edo konexinoa oso kalidade txarrekoa da baina beharrezkoa da familiagaz eta muduagaz konektauta eta komunikauta egoteko.

Pasadizorik edo?

R.S., I.A.: Nahiko berezia da Pazifikoko irlatan euskaldun asko topatu genduzala. Arrantza-ontzi batzuk egozan han eta bat Ber-

meokoa zan, beste bat Zornotzakoa... euskaldun bat baino gehiago topau dogu biajean, oso biajezaleak garala ikusten da. Familian umeakaz biajatzan dabena gitxiago dira, baina egon badagoz, frantsesak batez be.

Zelangoa izan zan bueltea?

R.S., I.A.: Biajean lez, beste herrialde baten moduan hartu genduan eta barrero hasi ginan zerotik. Errezagoa izan zan moneta eta lekuak jada ezagutzen genduzalako, baina barrero hasia izan zan. Dana dala, ez genduan izan honetara moldatzeko denpora askorik: heldu bezain laster lanera bueltau behar izan gendualako.

Eta etorkizunean zer?

R.S., I.A.: Orain, biajearen gaineko liburu bat prestatzen gabiz, gure esperientzia eta informazio praktikoa batuko dituna. Mobiduteko aholkuak, hotelak eta abar. Durangoko Azokan aurkeztea gurako geunke baina ez dakigu prest egongo dan, oraindino zirborroa bakarrik daukagu eta. Baina, urrietarako edo prest egotea espero dogu.

San Antonio JAIK 2013

www.arratia-merkatariak.com

<div style="background-color: black; color: yellow; padding: 5px; margin-bottom: 5px;">13an – TXU-TXU TRENA</div> <div style="background-color: black; color: yellow; padding: 5px; margin-bottom: 5px;">105 APARKALEKUAN/GARBE</div> <div style="background-color: black; color: yellow; padding: 5px; margin-bottom: 5px;">11:00etatik-14:00etara 16:00etatik-19:00etara</div>	<div style="background-color: black; color: yellow; padding: 5px; margin-bottom: 5px;">14ean – SORKIAK OPARITUKO DIRA</div> <div style="background-color: white; color: black; padding: 10px; margin-bottom: 5px;">Txapelketa gastronomikoetako partehartzaileentzako (amaitu arte)</div>	<div style="background-color: black; color: yellow; padding: 5px; margin-bottom: 5px;">16an – JAI HANDIA</div> <div style="background-color: black; color: yellow; padding: 5px; margin-bottom: 5px;">KULTUR ETXEAN</div> <div style="background-color: white; color: black; padding: 10px; margin-bottom: 5px;">JOKALDI + TXOKOLATEA</div>
<div style="background-color: black; color: yellow; padding: 10px; font-size: 2em; font-weight: bold;">Jai zoriontsuak opa deutsueguz !!!</div>		
<div style="background-color: black; color: yellow; padding: 10px; font-size: 2em; font-weight: bold;">IGORREN EROSI</div>		